



Goierritarra

243. zenbakia

2003-6-20

Sanjoanak
Olaberria eta
Seguran.
Sanpedroak
Mutiloan.

EHNE: Goierriko
Lurralde Plan
Partzialaren aurka

Martin Alustiza
pilotariak
Besagainekin
jokatuko du

Legorretako herri
krosak 25 urte



www.antzizar.net

tel. 943 887900

KIROLA EGITEN ARI DIRA >>>>>



BEASAINGO UBALA





BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierriako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Mari Flor Mendizabal, Aitziber Murua eta Iñaki Ugalde.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Turismo bulego iraunkorra Ordizian

Herriko bisita gidatuak eskainiko ditu

Ekainaren 12an inauguratu zen ofizialki, Ordiziako turismo bulegoa. Gudarien etorbidean kokatzen da. Orain arte, uda eta opor partean irekitzen zuten, baina hemendik aurrera, iraunkorki egongo da irekita. Gema López izango da bulegoaren arduraduna.

Ordizia eta Goierri eskualdeari buruzko informazio zerbitzua eskainiko du turismo bulegoak: ostatuak, jatetxeak, museoak, puntu interesgarriak, mendi eta mendi bizikleta ibilbideak, parke naturalak, azoka, jaiak eta abar.

Bulegoa asteazkenetik larunbatera egongo da zabalik. Asteazkenetan eta ostegunetan, goizeko 9etatik 1era, ostiraletan arratsaldeko 4etatik 8etara eta larunbatetan 10,30etatik 2etara. Informazioa posta arruntaren bidez, posta elektronikoz (turismo@ordizia.org) edo eta telefo-

no bidez (943882290 - 619464485) ere eskura daiteke.

Bisita gidatuak

Turismo bulegotik bideratuko dira Ordizia eta bere historia hobeto eta gehiago ezagutzeko bisita gidatuak. Asteazken eta larunbatetan, eguerdiko 12,30etan egingo dira bisitak eta ostiraletan, arratsaldeko 6etan. Ordubete pasako bisitak izango dira. Ordutegiak, dena den, aldatzeko edo moldatzeko aukera izango da, Gema Lopezekin harremanetan jarrita.

Eskualdeko produktuak

Turismo eskaintzaz gain, Goierri eskualdeko produktu ezberdinak erosteko aukera ere izango da bertan: babarrunak, gaztak, kamisetak, pinak, boligrafoak, eta abar.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Zaldibiako Herriari Leial herri plataformaren salaketa: "Zaldibiako Aralarren helburua, ezker abertzalea udaletik kanporatzea izan da"

Zaldibiako 'Herriari Leial' herri plataformako hautetsiek, hautetsi gaiek eta hainbat zaldibiarrek prentsaren aurrean adierazpena irakurri zuten ekainaren 4an Donostian, "azken hilabetean Zaldibiari buruz zenbait jende mediatikoko egiten ari den desitxuraketa eta gezurren aireratzek behartzen baikaitu Euskal Herriaren aurrean hainbat argibide ematea".

Udal hauteskundeetan Aralar alderdiak lortu zituen botorik gehien Zaldibian, alkatetza lortuz. Urko Galarragak eta Mariantonia Nazabalek irakurri zuten adierazpenean, Aralar alderdiak Zaldibian maiatzaren 25eko hauteskundeetan izan zuen "osaketa eta jokabide ez ohikoa" azaldu nahi izan zuten. "Zaldibiako Aralar udal taldearen oinarria, egun Zaldibiko Udala gobernatzen duen Ezker Abertzalea bertatik kanporatzea da. Horretarako, Zaldibian diren sentimendu, balore eta ideologia guztieta-ko jendearen bozka bildu dute, bere garaian tripartito izenarekin Euskal Herri guztian



Zaldibiako Herriari Leial herri plataformako hainbat kide, Donostiako Costa Vasca hotelean egindako agerraldian.

abertzaleoi alkatetzak kentzeko abian jarri zuten diseinuari jarraituz. Aralarren babesean, kolore eta sentimendu orotako jendea bildu dute".

'Herriari Leial'-ekoek emandako datuen arabera, udal hauteskundeetan Aralar alderdiak 460 boto eskuratu zituen eta batzar nagusietakoetan, 169. Gainerako boto gehienak EA-EAJ koalizioak eskuratu zituen: 269. "Datu hauek ikusita, edonork uler dezake zer ordezkatzan duen Zaldibiako Aralar udal taldeak. Bere osaketan ere, hemen azalduko ia esparru guztietako jendea biltzen du. Historian zehar, denborak, horrelako aldrebeskeriak agerian uzten ditu; PPri aurre egitea helburu omen zutenek, Ezker Abertzaleari aurre eginez bukatu baitute", adierazi zuten.

Era berean, ulertezina iruditzen zaie 'Herriari Leial' plataformakoei, "Zaldibiarekiko Aralar alderdi politikoak, hala nola EitB eta beste hainbat komunikabidek herriaren zati handi baten hitza zentsuratu izana, jarrera eta jokamolde horrek argitzen baitu noren zerbitzura lan egiten duten; ez Euskal Herriaren zerbitzura behintzat!".

Honela, 'Herriari Leial'-ekoek aurreratu zutenek, "ekainaren 14an Herriari Leialeko hautetsiak udaletxera joango dira, herriak eman dien 4 eserlekuko ordezkari-tza eta eskumena hartzera. Ez espainiar legediaren arabera, baizik eta Zaldibiako herriak erabaki duenaren arabera".

"Zaldibia ez da estatu espainoleko atzaparretatik libratzen"

'Herriari Leial' plataformakoei azkenaldian herrian bizi duten egoera ere salatu zuten. "Zaldibia herri txikia bada ere, estatu espainoleko atzaparretatik ez da libratzen. Hau diogunean, ez diogu Herriari Leial plataforma espainiar aginteak bere joko zelaitik at kokatu duelako soilik, baizik eta aspalditxotik kolpatzen dihardutelako gure herria eta bere hautetsiak. Zaldibiko herria aspalditik sufritzen ari da Guardia Zibilak geroz eta sarriago buruturiko okupazio polizia-lan. Armak eskuan hartuta, herriko plazan motoz nahiz patrol ikaragarri horiez baliatuz sartzen zaizkigu, bertan diren haurrak eta herri-tarrak identifikatuz eta bel-durtuz. Bide kontrolak ere eguneroko ogi bihurtu zaizkigu".

Orain arteko udala osatu duten alkate eta zinegotzien aurka, Espainiako Justiziak, bi prozedura juridiko irekiak dituela gogoratu zuten. "Herriaren erabakia eta nahia errespetatzeak suposatzen duen erantzun gordinaren zain gaude".

OSKARBI

ARROPA
GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

* Eguneroko menuak
* Asteburuko menu bereziak

* Karta zerbitzua
* Ospakizunak
* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Goierriko alkateak

Ekainaren 14an osatu ziren udal berriak, Itsasondokoa izan ezik, EAJ-EA koalizioaren ordezkariak uko egin baitzioten. Herri plataformatako zinegotziek euren aldarrikapenak egin zituzten, euren zegozkien karguak eskatuz. Herri batzutan onartu egin zituzten eta beste batzuetan ez. Jarraian duzue Goierriko alkateen zerrenda:

Altzaga: Jose Mari Aranburu (Independentea).

Arama: Mari Jose Olazabal (Independentea).

Ataun: Bittor Oroz (Herrigintza).

Beasain: Patxi Plazaola (EAJ-EA).

Ezkio-Itsaso: J.I. Etxezarreta (Independentea).

Gabiria: Xabier Aitor Murua (Independentea).

Gaintza: Santi Garmendia (Independentea).

Idiazabal: Antton Irizar (EA-EAJ).

Itsasondo: Ez da udalik osatu.

Lazkao: Felix Urkola (EAJ-EA).

Legorreta: Xabier Iraola (EAJ-EA).

Mutiloa: Iñaki Ugalde (Independentea).

Olaberria: Txomin Mendoza (EAJ-EA).

Ordizia: Alejandra Iturrioz (EAJ-EA).

Ormaiztegi: Iñaki Maiora (Ormaiztegiko Herri Taldea).

Segura: Mikel Areizaga (EA-EAJ).

Zaldibia: Francisco Aierbe (Aralar).

Zegama: Juan Inazio Galdos (EA-EAJ).

Zerain: Jose Ignazio Berasategi (Independentea).

Iñaki Dorronsoro, 'Berria' egunkariko administrazio kontseiluko kidea

Ataundarra Euskarazko Komunikazio Taldea S.A.ko administrazio kontseiluko kide berria dugu; hau da, ekainaren 21ean berriz ere kioskoetan izango den euskarazko egunkaria 'Berria'-ren administrazi kontseiluko.

Txiki Begiristain Bartzelonako idazkari tekniko berria

Bartzelona Futbol Klubeko idazkari tekniko berria da Olaberriko Aitor Begiristain, Joan Laportak hauteskundeak irabazi ondoren.



Marron Gasherbrumera

Jose Ramon Agirre 'Marron' Gasherbrumera igotzeko helburuarekin abiatu zen ekainaren 12an. Gailurrera igo eta jaitiera parapentean egiteko asmoa dauka ataundarrak. TVE-ren 'Al filo de lo imposible' saiorako erreportajeak filmatuko dituzte.

Aratz Mendizabal Asegarcera

Zaldibiako pilotariak Asegarcera enpresarekin sinatu du bere lehen kontratu profesionala.

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua

eguerdi eta gauean
larunbatetan ere bai

Afariak

bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07

Oriamendi, 40 BEASAIN

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- beheka

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



**GOKINDEGA
GARONNA**

K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

943 88 77 58 943 88 72 79 943 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA

iB&i-ONDO AROTZEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multi sac
SYSTEM

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta indutirako instalazioak
- Automatismok - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21

943 88 95 94

LAZKAO



Igor Aristegi
Urkia

Gure nortasuna egokia izan dadin, osasuna (osotasuna) bermatu behar diogu geure buruari. Aspaldion, gauza asko lapurtu dizkigute gurean, aitzakia txepelekin. Eta handia da barrego sua. Badira, ordea, zenbait galera telebistarik gabe gertatzen direnak, besteak bezain mingarriak. PESSOAK ESAN ZUEN GUGANDIK URRUNTZEN GARELA NORBAIT AGURTZEN DUGUN BAKOITZEAN. Zinema tabernak hutsune handia utziko digu, bai herrian, bai gure baitako auzunean.

Nortasun nazionala ez da asmakeria bat, ez da gezur bat; are gutxiago hizkuntza propioa duten nazioei baga-gozkie. Esanak izana dakar, eta, ezarian-ezarian, hizkuntzak eraiki egiten du mundua. Oharkabeki bada ere, hizkuntza bat konpartitzen dutenek mundu-ikuskera bat konpartitzen dute aldi berean. Baina, tira, gure herrian ez dago gauza hauek errepikatu beharrik. Elebidun garenok badakigu jakin zein diren desberdinak hizkuntza bat eta bestea. Horregatik gabiltza, hain zuzen, ahulenaren zaintzan. Aniztasuna dagoelako kolo-kan. Eta ez da txantxa: hizkuntza bat galtzen denean, mundu bat hondoratzen da.

Horra, bada: euskaldunok badugu nortasun bereizi bat. Baina, adi, ez dut esan nahi euskaldun guztiak berdinak gare-nik. Jainkoak gorde nazala! Ezta inondik ere! Kontua da, hiri nahiz herri bakoitzak ere baduela bere izaeraxo bat. Hala iruditzen zait niri behintzat. Hizkuntzaz gain badaude beste baldintzapen batzuk gure jokamoldean eragiten dutenak. Zeruaren aldarte, tenperatura, paisaiaren forma, haren koloreak... Ez pentsa txepelkeria esoterikoak direnik. Urbanismo-lanetan aritzen direnek asko zaintzen dituzte xehetasunok, hiri-herriak xuxen atontze aldera. Beasainen bertan kaleen tanke-
ra erabat aldatu da denbora gutxian, baina aldaketen inguruan luze hausnartuko zuten gauzoren ardura dutenak. Beasain berriarekin gustura dago jendea, eta neroni harrituta nago lanen txukuntasunarekin. Ondo eginak txalotzea gizalegezkoa da. Gainera, ezer onesten ez duenari ezin zaizkio gaitzespenak aintzatzatu.

Neronek, kritikatzeko bat utziko dut hemen, txaloekin eskuak gorritu ondoren. Aurten, herriaren osasunari (eta nortasunari) dagokionez, matxura batek kez-



Zinema taberna (Au revoir, mon amour)

Iñaki Cuellar-i

katzen nau. Gogoratzen al da inor Zinema tabernarekin? Zorritzarrez, ezetz esango nuke. Hura zer izan zen ere ez du jakingo hamaikatzok. Ez dakit orain askorik merezi duen, baina, arkeologiaren zaleak bazarete, antzemango dituzue Kale Nagusiaren gonapean zinema txikiaren aztarnak. Ez pentsa, ordea, gehiago kontzerturik dastatuko duzuenik, ezta antzerkiaren gezur samurrik ere... Erakustokiak ez du jada zer erakutsi, eta lehengo poesia hartatik azkeneko lerroak geratu dira soilik: "Se vende". Kale gorrian, oinutsik, ez da harrizko puta bat besterik.

Ai ene! Beldur naiz nostalgia ez ote zaidan arinegi sendatuko. Denborak dena ipintzen omen du dagokion tokian. Irlandar erako pub gustagarri batek berehala estaliko ditu taberna heretikoaren errautsak. Merkatuaren legea baita! Ez dago atzera bueltarik. Zuen baimenarekin, eta besterik ezean, doa nire damua orri ziztrin honekin: mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa! Nik ere, Iñaki, ez nuen behar adina eskertu zure ahalegin isila.

Apendizea

Orain gutxi Italian izan naiz. L'Aquila-n, Erromatik gertu.

Mendi arteko paraje haie-tan hizketa-jardunaldi batzuek egin dituzte, "Immagine di Uomo" tituluarekin, eta haietan ikus-entzundakoekin burutazio batzuk suertatu zaizkit. Pentsatu dut ez leudekeela tokiz kanpo dagokigun afera honetan.

Historian zehar gizaki-erduak aldatu egin dira nabarmenki. Urteen joanean, han-hemen, askotarikoak ezagutu dituzte gure arbasoek: filosofoa, poeta, santua, merkataria... Egun, ezegonkorra baita bizi dugun garaia, apenas daukagu iparrorratzik. Are gehiago:

zer komeni zaigun ere ez dakigu. Izan ere, hainbeste aukera! Beti zerbaiten bila, eta sekula aurkitu ez. Horixe da gure tragedia. Hain zuzen, L'Aquilan arazo hauen inguruan mintzatu dira. Irizpide antropologikoak erabiliz, gizaki-tipo osasuntsu baten erretratua proposatu ziguten. Baina axola zaiguna ez da italiar haiek zein eredu itxuratu duten jakitea. Auzia beste bat da. Hausnarke-ta, alegia. Zer behar dugun jakiteko. L'Aquilan egin duten moduan, Beasainen ere (eta beste edonon) hala egin beharko genukeela uste dut. Nahikoa da bakoitzak berekiko egitea aha-
legin hori. Aholku merkeak ez zaizkit gustatzen, eta, gainera, ni ez naiz inor inoren etxean sartzeko. Baina, esanak esan, beti egin liteke hobera. Gure nortasuna egokia izan dadin, osasuna (osotasuna) bermatu behar diogu geure buruari. Aspaldion, gauza asko lapurtu dizkigute gurean, aitzakia txepelekin. Eta handia da barrego sua. Badira, ordea, zenbait galera telebistarik gabe gertatzen direnak, besteak bezain mingarriak. PESSOAK ESAN ZUEN GUGANDIK URRUNTZEN GARELA NORBAIT AGURTZEN DUGUN BAKOITZEAN. Zinema tabernak hutsune handia utziko digu, bai herrian, bai gure baitako auzunean.

Euskal Herriko erle beltza kontserbatu nahian (I)

Erle beltza (*Apis mellifera mellifera* eta *Apis mellifera iberica*), Europako mendebaldean dago hedaturik, hots, Iberiar penintsulako hegoaldeetik hasita Suediako Hegoalderaino, eta Britaniar Irletatik Poloniako iparralde eta Errusiako ekialderaino. Eremu zabal honetan baldintza ekologiko guztiz desberdinak daude eta hautespen naturalaren eraginez baldintza ekologiko desberdinotara moldatu da erle beltza. Egungo erle beltzaren barneko dibertsitatea beraz, naturak eragindako eboluzio luzearen emaitza da, inguruneari ongi adaptaturiko arraza rustikoak sortu direlarik.

Dena den, azkeneko urteotan erle beltzaren banaketa-eremuaren atzerakada eta zatiketa larria gertatzen ari da. Honen arrazoi nagusia hazkuntza-teknika berrien erabilpenean datza, eta bereziki, erle beltzak ez diren bestelako erle arrotzen inportazioan. Duela 15 bat urtetatik hona, Europa osoan barroasiak (*Varroa jacobsoni*) eragindako hilkortasuna dela eta, carnica arrazako erleak masiboki inportatu ziren Europako mendebaldera. Gainera, erreginak inportatzeko joera handituz joan da azken urteetan, eta baita trashumantzia ere. Guzti honek erle arrazen nahasketa eta kolonia hibridoaren ugaritzea ekarri du. Kolonia hibrido horiek bertako koloniek gurutzatzen



dira, eta honela, erle beltza jasaten ari den erosio genetikoa (dibertsitate biologikoaren suntsipena) kezkarria da oso.

Euskal Herria: erle beltza babesteko lurralde aproposa

Badira erosio txikiagoa jasan duten zenbait eskualde, Euskal herria kasu. Nahiz eta Euskal Herrian inportazioak eman, bertako erlea ustiatzen da nagusiki. Zenbait eskualdetara ailegatzeko dauden zailtasunak bitarte, eta besteak beste erlazain askok eginiko kontserbazio-lanak, bertako baldintza ekologikoetara guztiz moldaturiko erleak kontserbatzea ekarri du.

Euskal Herrian Europako eskualde biogeografiko nagusi biak gainezartzen dira, hots, atlantiarra eta mediterraniarra. Honek, gure lurraldeak eskaintzen dituen baldintza ekologiko desberdinak direla eta, ekotipo (ingurunearekiko adaptazio espezifikoak dituzten populazioak) desberdinak topatzeko aukera handia dago. Baldintza hauek ez dira erraz aurkitzen Europako gainontzeko lurraldetan, are gutxiago elkartetan antolatutako eta harremanetan dauden erlezainak, bertako erle beltza mantentzeko ardurarekin. Faktore guzti hauek ezinbestekoak dira erle beltzaren berreskuratze, kontserbazio eta hobekuntza aurrera eramateko.

Gipuzkoako Erlazainen Elkarteak lankidetzan

"Azkeneko urteotan erle beltzaren banaketa-eremuaren atzerakada eta zatiketa larria gertatzen ari da. Arrazoi nagusia erle arrotzen inportazioan eta barroasiak sorturiko hilkortasunean datza".

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ Erleekin gabiltzala, ezin bestekoa dugu **eztiaren aipamenen bat edo beste** egitea. Azken alean, ezkia loratze fasean genuela eta, hari buruzko zenbait ezau-garri aipatu bagenuen ere, hona hemen berarekin batera loretan dagoen gaztainondoarekin bat, erlezainen intereserako ezaugarri batzuk:

Gaztainondoa (*Castanea sativa*), ongi hazten da klima heze eta epeletako zoru azidoetan, udako lehorte gogorrik eta izozte berantiarrik ez bada. Loreak, gerbak hosto-galtzarbean jaiotzen dira, finak eta horiskak. Parterik handi-enean lore arrak egoten dira bata besteangandik bananduta; emeak oinaldean kokatzen dira eta, nektarra eta polena ugari emanaz, ekainean loratzen dira. Hauek ematen duten eztiak kolore ilunekoa da eta zapore mingotsa uzten du aho-sakonean.

Ezki hostozabala (*Tilia platyphyllos*), trokarte, arroi eta amildegietan bizi ohi da, baso mistoen parte osatuz, eta kararri substratuetan batik bat. Loreak zurri-horiskak, usaintsuak, 1-6ko zima zintzilikatueta izaten ditu eta ekaina hasieran loratzen da. Baldintza egokietan, ezki-hektarea batek 1.000 kg. ezti eman dezake (zuhaitz batek 16 kg. inguru). Eztiak, hori-laranja kolorekoa da. Usain sendoa eta berezia, luze irauten duena. Zapore iraunkorra du eta mikatzatzen piska bat uzten du aho bukaeran.

Kate motzean

Zuentzat zein da garairik onena?

Uda garaia, Aste Santua eta zubiak.

Eta txarrena?

Negua, aste barruan.

Nongoak dira bezero gehienak? Bitxienak?

Gehienak Euskal Herrikoak eta katalanak. Bitxienak... orain adibidez, finlandiarrak ditugu etxean.

Eta onenak?

Orain arte ez daukagu kexarik.

Zein motatako bezeroak dira?

Denetik. Gazteak, bikoteak haurrekin, jubilatua...

Bataz beste zenbat egun egiten dituzte?

Neguan ostiraletik igandera. Uda garaian, 5, 8, 10 egun.

Nekazalturismoko etxeak zer eskaintzen du, hotel batek eskaintzen ez duena?

Herrietatik kanpo direnez, lasaitasuna, zarata gutxi, apartzeko arazorik ez, masifikaziorik ez. Sukaldea eta jangelak konpartitzeak lagun berriak egiteko beta ematen du.

Zeren bila etortzen dira?

Lasaitasuna eta herri kutsuaren bila gehienak.

Goierritik zer gustatzen zaie gehien?

Paisaia asko eta herri txikiak, herrietako festa giroa udan.

Turisten igoera nabaritzen al duzue?

Urtetik urtera.

Bezeroak zein bide erabiltzen du erreserba egiteko?

Normalean telefonoa.

Jendeak errepikatzen al du?

Bai, eta ezagunak bidali ere bai.

Zuentzako zer izaten da zailena?

Ez da lan zaila, denbora eskatzen du eta batzuetan hori lortzea da zaila.

Eta gustukoena edo aberasgarriena?

Elkarriketak. Gehienek gustuko dute baserriari edo herriari edo inguruari buruzko gauzak jakitea.

Baserriarentzat laguntza egokia al da nekazalturismoa?

Nire iritziz bai. Ez ekonomikoa bakarrik, baizik eta moral aldetik ere laguntza handia da baserriar "konpleju" hori alde batera uzteko.



Karmele Murua

(Ondarre nekazalturismoa)

Nagusia
Optika
Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak
☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

ZUZENKI Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa
AHOLKULARITZA
e txekin
www.txekin.net
Etxebizitzaren salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elozegi, 16 LAZKAO

Mazda
Bikar, S. A.


☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

VOLVO
LAND-ROVER
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

MUJICA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



*Olaberriako Udalak
jai zoriontsuak opa
dizkizue eta agur bat
bidali nahi die
gurekin egon ezin
diren guztiei.*



**OLABERRIAKO
UDALA**

Aurtengo udan ez etsi...

...zatoz udako ikastaroetara eta euskera ikasiko duzu

2003 Udako Euskara Ikastaroak

ESKaintza

EUSKALDUNTZEA, ALFABETATZEA eta EGA.

ERRITMOAK

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra (08:30-13:00)

Irailaren 1etik 30era (08:30-13:00)

EGA: irailaren 1etik 30era (19:00-21:00)

MATRIKULATZEKO EPEA

Ekainaren 9tik 24ra

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

HAZTEKIN

UDAL
EUSKALTEGIAK



BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA
Lainazko San Martin Plaza, z/g
20200 BEASAIN
Telefonoa: 943 02 81 00
zuzendaritza@beasain.net

BAIE

www.udaleuskaltegiak.net

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Ekainaren 21etik aurrera  Zure kioskoan



Euskaldunok behar dugun **berria**

EHNEren eskutik, Goierriko Lurralde Plan Partzialak erakusgai "Mapa agrologikoa errespetatzen ez denez, Goierriko LPPa atzera botatzea eskatzen dugu"

Ekainean erakusgai izango dira Goierriko 4 tokitan, Goierriko Lurralde Plan Partzialen (LPP) planoak eta informazioa. EHNE sindikatuak egingo du informazio kanpaina, "Foru Administrazioak horretarako ahaleginik egiten ez duela ikusita". Nekazal lurrik aberatsenak ikutzen dituen plana denez, bertan behera gelditzea eskatzen du EHNEk.

"Hurrengo urteetan gure udalerrien etorkizuna baldintzatuko duen dokumentua izaki, Goierrialdeko PTP edo Lurralde Plan Partziala jendaurrean erakustea beharrezkoa ikusi dugu, Foru Administrazioak horretarako ahaleginik egiten ez duela ikusita. Beharrezkoa da hurrengo urteetarako bakoitzaren auzo edota etxe inguruan Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egiten duten planifikazioaren inguruan informatuak egotea", adierazi zuen Marije Intxausti EHNEko idazkariak.

Hori dela eta, Goierriin 4 lekutan izango dira planoak eta informazio ikusgai eta aztergai: Beasaingo, Zeraingo eta Ezkio-Itsasoko udaletxeetan eta Ordiziako Eskualdeko Nekazal Ganbaran (Dorretxean). EHNEk ahalik eta iritzi, iradokizun edo alegazio gehienak jaso nahi ditu. Guzti horretarako telefono zenbaki bat herritarren eskura jarri du EHNEk: 943 65 35 90.

Nekazal lurrik onenak

Goierriin dagokionean, oso kaltetuak geldituko diren guneak daude, "ibar asko eta asko hartzen dira beste okupazio batzuetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzarako onenak diren lurrak hartuz", zehaztu zuen Intxaustik.

Bigarren etxebizitza

Bigarren etxebizitzarako izendatu dira Goierriko hainbat herrietako hainbat lur. Zehazki esaterako, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Ezkio-Itsaso, Ataun, Gaintza, Alzaga eta Arama. "Jaurlaritzak urbanizagarriak ez diren lurrak babesteko lege bat atera zuen, eta orain LPP hauek lege hori hankaz gora botatzen dute. Kontuan hartu gabe, etxebizitzaren beharra benetan zein den. Bigarren etxebizitzetarako lekuak edo guneak sortzen badira, ez dira herrikoentzat bertakoentzat, kanpokoentzat baizik eta



Eneko Karrera eta Marije Intxausti EHNEko ordezkariak eta artean Ezkio-Itsasoko alkatea zen Iñaki Idiakez azaldu ziren prentsaren aurrean.

hori salatzen dugu".

Oianguko parkea hirukoiztu

Ordiziako Oianguko parkea zabaltzeko asmoa ere azaltzen dute LPPek. "Hirukoizteko edo laukoizteko asmoa daukate, Lazkaomendi aldeira. Aisialdirako zabalera handia eman nahi zaio eta iruditzen zaigu hori oso desproporzionatua dela".

Ezkio-Itsaso "deseginda"

Ezkio-Itsaso ere oso ukitua geldituko da, "eragin handia izango du Ezkio-Itsasok. Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea markatua azaltzen da planoan. Horretaz gain, beste aktibitate ekonomiko batzuetarako beste gune zabal bat izendatzen dute. Ezkio-Itsaso guztiz deseginda geldituko litzateke. Eragina izugarria da Ezkio-Itsason".

Nekazal lurrik erasotutak

Intxausti oso kezkatuta azaldu da, "nekazal lurren izugarriko okupazioak ikusten ditugu, eta lur okupazio hori egiterakoan ez dira kontuan hartzen nekazaritzako lurrak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eginda daukan mapa agrologikoa edo aberatsenak diren

lurren mapa, ez da ezertarako kontuan hartzen", LPPak errespetatu behar duen DO-Tak "nekazaritza lurra gero eta eskasagoa dela eta izendatu eta babestu behar dela dio eta ikusten dugu eta beraiek onartutako legea LPPa egiteko garaian ez dutela kontuan hartzen". Beraz, "mapa agrologikoa ez denez

kontuan hartzen, LPP hau atzera botatzea eskatzen dugu".

Beste salaketa bat ere egiten du EHNEk. "LPP hauek egiteko urte mordoska bat hartu du Foru Aldundiak. Aztertzeke eta alegazioak aurkezteke berriz, bi hilabete besterik ez dizkigute utzi".

LPP hauek 12 bat urtean gauzatuko dira eta Marije Intxaustik prentsaurrean gogoratu zuenez, "LPP hauek udalak era baldintzatu egiten ditu. Udalek ezingo lukete aldatu".

Marije Intxausti:
"Udalak baldintzatu egiten dituzte LPP hauek"

San Joan jaiak Olaberrian

Ekainak 21, larunbata:

10:00etan: Jubenil mailako XIV. Gipuzkoako Itzuliaren irteera.

11:45ean: Txirrindulari itzuliaren amaiera.

17:00etan: Jaietako pregoia eta kanpai jotzea.

17:30ean: Gipuzkoako Segalari txapelketako kanporaketa: Jesus Mari Ormaetxea 'Urki', Xabier Martiarena 'Bengoetxea II', Antton Erauskin 'Etsetxo', Andoni Goikoetxea, Andoni Rezabal eta Errezilgo kanporetatik ateratzen dena.

Jarraian: Buruhandiak.

19:00etan: 'Iturrian zer dago?' dantza, bertso eta trikita-ixa ikuskizuna Xukan taldearen eskutik.

20:30ean: Burruntzian erretako euskal txekor jana.

23:00etan: Su artifizialak,



Piroctenia Zaragozanaren eskutik.

23:30ean: Dantza erakusketak, eta ondoren dantzaldia Ludi-berri taldearekin.

Ekainak 22, igandea:

10:00etan: Bola txapelketa.

11:00etan: Herri mailako XVIII. Pala txapelketa.

13:00etan: Meza nagusia.

13:30ean: Bertsolari jaialdia, Goierriko Bertso Eskolako partaideekin.

18:00etan: Asto karrera.

19:30ean: Sagardo eta talo dastatzea.

Ekainak 23, astelehena:

Umeen eguna:

11:00etan: V. Gaztetxoaren pilota txapelketa eta I. Jubenil



mailako paleta larruzko San Joan txapelketa.

12:45etan: Joko eta jolasak.

13:30ean: Haurrentzako bazkaria.

14:30etik 18:30era: Txiki eta gazte guztientzako jolas parkea: kars pista, laberintoa, pilota etxea...

19:00etan: Buruhandien irteera.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



IRUDI - Foto, S.L.

Javier Fernández Sánchez

Erroilu bat *doan* negabibo errebelatu bakoitzarekin

Argazki zaharren retoke digitala

San Inazio kalea, z/g BEASAIN

Tel./Faxa: 943 888 100



iñAUSTI

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

OPEL
GIAUTO



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun

☎ 943 88 51 50

OLABERRIA



* Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

* Asteburuetako menuak.

Larunbatetan afal ostean musika izaten da

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Merkatal zentrua ☎ 943 16 02 15 OLABERRIA



INDUSTRIAS LANDU
KOOP. E.

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94

Faxa: 943 88 99 10

☎ 943 80 21 80

95 posta kutxa BEASAN

6. Industrialdea, lurre auzoa OLABERRIA

Guardi industrialdea, 25 IDIAZABAL



19:30ean: Ohiko loreen be-
deinkapena.

20:00etan: San Joan Arbola-
ren igotzea, aurrekulari eta
txistulariekin.

21:00etan: Euskal arkume
txuletatxoaren parrilakada.

22:00etan: San Joan sua,
Olaberriko abesbatzarekin,
Lazkaoko Oin-Arin dantza
taldearekin eta txalapartarie-
kin.

Jarraian: Tapia eta Leturia-
rekin jaialdia.

Ekainak 24, asteartea:

10:00etan: Goiz eresia.

10:00etan: Herri mailako
plater hausketa.

11:00etan: Meza. Amaieran
San Joan doinua herritarren
artein abestuko da. Eta buka-
era emateko, herriko abesba-
tzaren emanaldi laburra.

12:00etan: Udalak eskainita-
ko hamaiketakoa.

Ondoren: Herri kirolak: Pe-
rurena aita-semeak, harrijaso-
tzen; Ugaitz eta Aratz gazte-
ak aizkoran; eta Mugerza eta
Barberana, zutikako mozke-
tan.

17:00etan: Jokoak eta taile-
rrak ume eta gazteentzako.

21:30ean: Gazte afaria.

23:30ean: Rock kontzertua:
Beasaingo Sobredosis de
Mistol eta Idiazabalgo Apart-
heid hil.

Ekainak 28, larunbata:

11:00etan eta 16:00etan: Gi-
puzkoako Tiro txapelketa.

Argazkiak: Jabier Fernandez.

ILARGI AUTOELEKTRIZITATEA



Bosch eta Veeder-root
takografoen zerbitzu
ofiziala



Jai zoriontsuak denoi!

© 943 88 32 12

Iurre auzoa OLABERRIA

GARTXO JATETXEA

gosariak
hamaiketakoak
eguneroko menua

Aukera haundia

Industrialdea, 118

© 943 88 13 09

OLABERRIA



*Festa
onak
pasa!*

EDARITEGIA

© 943 88 95 60

OLABERRIA

Estación de Servicio

YURRE



Jai zoriontsuak pasa!

**AUTO-ZERBITZU
GELTOKIA**

24 ORDUKO ZERBITZUA

© 943 88 01 61 **Iurre auzoa
OLABERRIA**



MARTINEZ
bulkanizatuak



MICHELIN ZERBITZUA

Tel.: 943 88 05 66

**Iurre Auzoa
OLABERRIA**

OGEI S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

© 943 88 52 50 - 4

Iurre Auzoa, z/g

OLABERRIA

12 P.K. BEASAIN

www.ogei.net

Matsaldeko txekorra burrunztian

Bi otordu egiteko aukera izango da Olaberriko San Joan jaietan: ekainaren 21ean, Matsaldeko txekorra burrunztian erreta eta ekainaren 23an, Etxezarretaren arkumea parrillan. Beste urteetan ere egin izan diren ekitaldiak dira baina aurten badute berezitasun bat: produktuak, herrikoak bertakoak direla.

Ekainaren 21ean, larunbatean, iluntzeko 8,30etan, Matsaldeko txekorra dastatzeko aukera izango da. Goizeko 8ak aldean burrunztian erretzen hasiko dira, eta iluntzerako prest egongo da. Matsalden harrapatu genuen, bere azkeneko egunean, pirenaika arrazako txekorra.

Iazko San Inazio egunean jaio zen txekorra eta ekainaren 13an hil zuten, ekainaren 21erako prest egon dadin. "Txekorra txikia da baina neurri horretakoa nahi zuten.



Jose Mari Lasak, burrunztian erreta jango den txekorrarekin, hiltzera eraman aurreko orduetan.

Duela bi urteko txekorra 240 kilora ailegatu gabekoa zela uste dut. Baina eskuz eman behar izaten zaio buelta eta hori izaten da arazoa. Handiagoak, koipe gehiago izaten du. Baina haragia fina izango du", esan digu Juanjo Lasak.

Hasieran Euskal Labelean sartzeko asmoa ere bazegoen, "baina Labelean sartzeko urtebete baino gehiago behar du izan txekorrak", zehaztu

du Lasak. "Hurrengo urterako Labeldun txekorra nahi dute udaletxeok, baina horretarako, dagoeneko jaioa dagoen txekorren bat behar dute. Handiagoa izango denez, buelta emateko beste sistemaren bat erabili behar dute, 300 kiloko txahalari eskuz buelta ematea oso zaila baita".

Herriaren aurrean proba gogorra izango dute beraz: "guk baino gehiago erretzen

duenak", esan du Lasak.

Duela bi urte ere erre zuten txekorra burrunztian, baina orduan ez zen herriko txekorra. Aurten, bai. "Herriko txahala hiltzea zen helburua, kanpotik ekartzeak ez dauka zentzurik eta", esan digute. Herrikoa eta herritarrentzat. "Kanpokoa gehiago izango da", esan digu Jose Mari Lasak.

Txekorraren prezioa ikusita, Juanjo Lasak adierazi digunez. "Festetako ekitaldirik merkeenaritakoa izango da. Orain 20 urteko prezio bera egiten du gaur egun txekorrak".

Erretze lan ikusgarria

Elorrioko Karlos Ibarrondok erreko du txekorra. 12 ordu beharko ditu txekorra erretzeko, beraz, goizean goiz hasi beharko da ikatza eta burrunztzia prestatzen. Iluntzeko 8,30etarako prest egon beharko du.

Erretzen ikustea ere ekitaldi ikusgarria izango da. Erditik eginda erreko dute. Buelta, eskuz ematen zaio.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA


*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasak, Viaña eta Osaki. **Lagorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

... herritarrentzat

Etxezarretatarren arkumeak parrilan

Mikel eta Santi Etxezarreta anaiek arkumeak eta gazta jarriko dituzte San Joan jaietan. 12 euroren truke afaltzeko aukera izango da, ekainaren 21ean, iluntzeko 9etan. Udaletxean, Zezilionean edo Ludotekan eros daitezke txartelak. Artzaintzatik bizi dira Olaberrian bizi diren bi anaia zegamarrek. Urbian dute txabola eta bizilekua.

Aizpeako Mikel eta Abaroko Santi anaien arkumeak parrilan dastatzeko aukera izango da. Postrean gazta ere bai. Beste urteetan parrilada izaten da baina kanpoko arkumeak izaten dira. Aurten, bertakoak, txekorra bezalaxe.

80 kilo arkume, 10-11 arkume hilko dituzte egunera-ko. "Hilabete eta erdi inguru-ko arkumeak dira. Denboraldi amaiera da baina aurretik Udaletxetik asmoa azaldu zi-



Ezkerrean, Santi eta eskuinean, Mikel.

gutenez, posible izan da aurreikustea", dio Mikelek.

Herriko produktuak bul-tzatzeko Udalak hartu duen erabakia, oso egokia iruditzen zaie Etxezarreta anaiei. Hauek ere, beraz herritarren aurrean erronka izango dute San Joan jai hauetan.

Urbian dute txabola eta bertan bizi badira ere, tarte bat egingo dute jaietara etortzeko.

Urbian artzain

Negu partean Olaberriko Aizpea eta Abaro baserrietan pasatzen badute ere, Urbian dute artzain txabola eta bizilekua. Artzainen ondorengoak dira Mikel eta Santi. Aita eta aurrekoak ere artzaina izandakoak. Beti artzaintzatik bizitakoak dira. "Gu Urbian ha-zi eta hezitakoak gara", adierazi digute Olaberrian bizi diren anai zegamarrek.

Azkeneko urteetan artzaintza asko aldatu dela diote. "Erosotasun aldetik erraztu egin da baina kopuru aldetik, askoz ardi kopuru handiagoa eduki beharrean gaude. Inbertsiotan sartuta gaude eta aurre egiteko gehitu egin behar da produkzioa. Lana erraztu da baina lan gehiago egin behar da", azpimarratu dute.

Artzaintza ogibide gogorra dela esan ohi izan da. "Gogorra baino gehiago, lotua. Negu garaia izaten da txarrena. Erditzeak hasi eta mendira igo bitarteko garaia gogorra izaten da".

Gaztak, otsailetik San Fermin aldera arte egiten dituzte eta horixe da etekinik handiena ematen diena. "Nahiko ondo saltzen da. Artzainok etekinik handiena hortik ateratzen dugu".

Azken egunotako beroak eta eguraldi eguzkitsuak ez omen dira batere egokiak gaztarentzat. Mendian ibiltzeko, hori bai, ez dira txarrenak. Oraindik lehorterik ez dagoela adierazi dute.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



SASIETA MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net Martina Maiz, 3 beheia - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55

San Joan jaiak Seguran

Ekainak 20, ostirala:

19:30etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak, Kriseilu txistulari
taldearekin.

20:00etan: Zopa Pertzaren
jaitsiera, pregoia eta bokau-
txoa plazan.

23:00etan: Kiñu taldearekin
dantzaldia.

Ekainak 21, larunbata:

09:00etan: Arrantza txapel-
keta.

09:30etik 11:00etara: Gi-
puzkoako toka eta bola txap-
elketa.

11:30etan: Jatorrenak txaran-
ga egun osoz.

12:00etan: Danborrada.

12:00etan: Koadrilen arteko
III. Futbito txapelketaren fi-
nala.

15:00etan: Koadrilen arteko
bazkaria plazan.

16:30etan: XLVI San Joan



txirrindulari proba.

17:00etatik 18:00etara: Gi-
puzkoako toka eta bola txap-
elketa.

18:00etan: XXVII. Euskal
Herriko dantza txapelketako
kanporaketa.

18:00etan: Haurrentzat ma-
rrazki jaia plazan.

19:30etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak.

23:00etan: Dantzaldia Irail-
lerako 6 taldearekin.

Ekainak 22, igandea:

11:00etan: Plater hausketa
Mendotze aldean.

11:00etan: Korpus eguneko
meza konbentuan.

12:00etatik 14:00etara:
Tren berezi turistikoa herrian
zehar.

12:30etan: 100 Txistularien
Alardea, kaleetan zehar.

13:00etan: Txistu kontzertua
plazan: txistulariak, metal

bostekoa eta herriko abesba-
tza.

17:00etatik 20:00etara:
Tren berezi turistikoa herrian
zehar.

18:00etan: XXVII. Euskal
Herriko Dantza txapelketako
finala.

19:00etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak, Kilkir txarangare-
kin.

20:00etan: Korpus eguneko
ardo partitze eta herri afariak.

23:00etan: Koldo eta Aran-
txa taldearekin erromeria pla-
zan.

Ekainak 23, astelehena:

12:00etan: Kulki haur jola-
sak plazan.

16:30etan: Txirrindulariak:
Gipuzkoako Itzuliaren
amaiera.

17:00etan: Oria txaranga he-
rrian zehar.



IMAZ Jatetxea

Festa zoriontsuak igaro!

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

SEGURA

San Joan Jaiak SEGURAn

Udalaren izenean
San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu



SEGURA UDALA



19:00etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak.

20:00etan: Mozorrotuen
gauari hasiera.

20:00etan: San Joan Arbola
jartzea.

23:00etan: San Joan sua, he-
rriko dantzariekin.

23:30etan: Dantzaldia plazan
Ene Bada taldearekin.

Ekainak 24, asteartea:

09:45etan: Segurako Albora-
da Kriseilu txistulari taldeare-
kin.

10:15etan: Alkate Doinuaz
elizara bidean.

11:00etan: Meza Nagusia
konbentuan.

12:00etatik aurrera: Puzga-
rriak, kartsak... haurrentzat.

12:00etan: Andoni Egaña eta
Sebastian Lizaso bertsolariak
Udaletxeko balkoitik agurra.

12:15etan: Herriko abesbatza
'Segurako Alborada' kanta-
tuz, Arabarren plazan.



12:30etan: Hamaiketakoa,
Arabarren plazan.

13:00etan: Herri kirolak pla-
zan. Aizkolariak: Larretxea-
Nazabal nafarrak, Arrospide-
Azurmendi gipuzkoarren aur-
ka. Harrijasotzailea: Ostola-
za, Euskal Herriko txapeldu-
na.

13:00etan: Atari eta balkoi
ederrenei sari banatzea.

16:00etan: Herriko txistula-
riak etxex etxe Alborada joaz.

17:00etatik 20:00etara:
Puzgarriak, kartsak, ovniak...

17:00etan: Koxkola txaran-
ga.

18:30etan: Profesionalen ar-
teko Pilota partidak: Capellan
eta Imaz, Xala eta Lopez de
Eulateren aurka.

20:00etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak.

23:00etan: Dantzaldia Triki-
zio taldearekin.

Ekainak 25, asteazkena:

11:00etan: Goiz eresia Kri-
seilu txistulari taldearekin.

12:00etan: Toka, igel eta bo-

te jokoak Atsedenen.

12:30etan: Tobera musika
eskolakoen emanaldia.

13:00etan: Toka txapelketa
herrikoia plazan.

14:00etan: Umeentzat baz-
kari herrikoia plazan.

16:00etan: Takolo, Pirritx
eta Porrotx, Baratze pilotale-
kuan.

18:30etan: Afizionatuen pilo-
ta partidak: Antxia II-Zabala
Dominguez-Bengoetxearen
aurka eta Eguzkize-Erauskin
Mendizabal-Altunaren aurka.

19:00etan: Erraldoiak eta bu-
ruhandiak.

**20:30etik 22:00etara eta
23:30etik 02:00etara:** Egan
musika taldearekin errome-
ria.

23:00etan: Txanbolinpetik
Zopa Pertzarekin kalejira, tri-
kitilari, poteolari elegante eta
herritarrak lagun direla.

00:00etan: Zopa Pertzaren
igoera eta agurra.

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA


amatriain
f r u t a k

Jai zoriontsuak denoi!

Tel.: 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
SEGURA


HERRIKOA
Jaietan ere, euskal preso eta
iheslariak gure artean izanen
dira. Elorripetik besarkada
iraultzaile bat guztiei eta
ondo pasa aurtengo jaietan.
☎ 943 80 10 02 **SEGURA**


KENDU

Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan

San Joan jai zoriontsuak denoi!

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

San Pedro jaiak Mutiloan

Ekainak 27, ostirala:

19:30etan: Txerriaren jaitsiera, suziriak eta kanpai jotzea, aurtengo festei hasiera emateko.

20:00etan: Egunkariaren aldeko sagardo dastaketa mundiala, talo, txistorra eta guzti. Guztira 26 sagardogile desberdinen sagardoa probatzeko aukera izango da. Segurako talogileak izango dira taloak egiten.

Ondoren: Afari pasatzea egiteko oilasko errea izango da.

23:00etan: M-n Ezten eta Alaitz eta Maider taldeekin dantzaldia.

Goizaldean: Gauda ondo amaitzeko txokolatea izango nahi dutenentzat.

Ekainak 28, larunbata: San Pedro bezpera:

Eguerdi aldera: Egunari hasiera emateko, poteo herrikoia.

14:00etan: Gazte bazkaria

17:00etan: Ume jolasak. Opari ugari izango dira.

18:00etan: Patata tortila lehiaketa.

18:00etan: Bola lehiaketaren hasiera. Sariak egun bakoitzeko irabazlearentzat (larun-



bat eta igandean), bi eguneko irabazlearentzat eta herriko irabazlearentzat izango dira. Parte hartzeko epea 19:00etan itxiko da.

Afariaren aurretik: Ardo banaketa herriko plazan.

21:00etan: Herri afaria.

Afaldu ondoren: Sokatira lehiaketa herriko ezkondu eta ezkongabeen artean.

00:00etan: Dantza saioa Joselu Anaiak taldearekin.

Ekainak 30, igandea: San Pedro eguna:

09:00etan: Segurako Txistularien eskutik goiz eresia.

Mezaren ondoren: Gabiria-ko Goruntz taldearen saioa.

13:00etan: toka lehiaketa.

Eguerdi aldean Elortza

Anaiak trikitilariek alaituko dute.

17:00etan: pilota partidak. 1. partida, Jon Ander Insausti eta Jon Mujika, Ander Kaloka eta Eneko Arzelusen aurka. 2. partida, Muguruza eta Patxi Ruiz, Aranzeta eta Oiarbideren aurka

18:00etan: Bola lehiaketa. Izen ematea, arratsaldeko 6,30ak arte izango da.

18:15ean: Herri kirolak Zur-gai taldearen eskutik. Aizkoran elkarren artean lehiatzen: J. M. Flores eta Julen Mendieta. Aizkoran Maider Mazizior aurreko aizkolarietako batekin lehiatzen. Aitzurrarekin eta alturan egurra moztzen Jose M. Esnaola zegamarra. Harri-jasotzailea Goenatxo II. Iparaldeko jokoak, Ibon Irazola

eta Inaxioren eskutik, Lasto altxatzen, lastoa botatzen eta ingudearekin lanean arituko dira.

Eguna amaitzeko: Elortza Anaiak trikitilaren eskutik erromeria.

Uztailak 5, larunbata: Errepetizio eguna:

18:00etan: hasita sega apustua, herriko lau gazteren artean, Odio aldeko zelaletan. Bekotxe eta Xefe, Iparre eta Zabaloren aurka.

Afaldu aurretik: ardo banaketa.

21:00etan: afaria.

Afaldu ondoren: denak dantzara Trakets taldearekin.

Afaldu ondoren: mozorro festa eta sorpresa ederrak izango dira.


Oharrak:

● Ostiralean sagardo egunean biltzen den dirua egunkari berriaren egitasmoa bultzatzeko izango da.

● Afarirako txartelak herriko Ostatuan hartu behar dira aldeztu aurretik. Telefonoa 943-801166

● Tonbola izango da.

MUGUJAR
Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68

ORDIZIA



MUJIKAJatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

Ostatu jatetxea

Jai zoriontsuak guztioi!

Tel.: 943 80 11 66

MUTILOA



Jaietako ekitaldi aipagarrienak

Mutiloko jai nagusienei ekainaren 27an emango zaie hasiera. Apaiz etxeko ganbaratik, udaletxeko balkoira txerri gorria jeitsiko da. Ordu honetan, kanpai jotze eta altxafuego hotsik ez da faltako.

Ondoren etorriko da urte-tik urtera indar handiagoa hartzen ari den Sagardo dastaketa. Frontoian izango da arratsaldeko 8etatik aurrera eta bertan 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa probatzeko aukera izango da. Nahiko sagardo edan ondoren oilasko erreza izango da nahi dutenentzat.

Aurten gainera helburu jakin baterako izango da ekitaldi horretan jasotzen den dirua, ordurako sortua izango den, euskaraz egindako egunkari berriari laguntzeko hain zuzen ere.

Ostirala amaitzeko, musika izango da M-n Ezten eta Alaitz eta Maider taldeen eskutik goizeko ordu txikiak arte.

Bigarren eguna, eguerdi aldera hasiko da poteo herrikoi batekin eta ondoren herriko gazteen bazkaria.

Arratsalde partean ume jolasak eta patata tortila goxoak egiteko eta ondoren probatzeko aukera paregabea izango da. Laugarren ekitaldia da



aurtengoa eta berrikuntza moduan partaide guztiei osagai berdina ematea pentsatu da eta ez da piperrak edo beste osagai batzuk botatzeko aukerarik izango.

Iluntze partean afaria egingo da herriko plazan eta ondoren aspaldiko urtetan jo ez duen 'Joselu anaiak' taldeak alaituko digu afaldu ondoren.

Afaldu ondoren, eta hau ere berria da, herriko neska eta mutil ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira lehia-keta izango da.

Igandea San Pedro eguna, ekitaldiz betetako eguna izango da. Goiz partean txistulariak eta dantzariak izango dira eta arratsaldean berriz, herri kirolek izango dute tartea.

Lehenengo bi pilota partida jokatu dira eta ondoren Zurgai taldearen eskutik aizkolari, harrijasotzaile eta iparraldeko joko desberdinak

Udal eraketa berria

Ekainaren 14an egin zen ez ohiko pleno batean aukeratu zen datozen lau urteotarako udaletxe berria eta honela eratuta geratu zen: Alkatea: Iñaki Ugalde. Zinegotziak: Jon Zabalo, Iñigo Apaolaza, Anjel Mujika eta Juanita Murgiondo.

Gertaera bitxiak

Ekainaren 10ean urte sasoi honetan oso normala ez den gertaera bitxi bat ikusteko aukera izan genuen. Herrian noraezean ibili ondoren gure artean ordu batzuk geratzea erabaki zuen zikoina batek, herriko kanpandorrean aukeratu zuen kokalekua moduan.

Ekainaren 14an berriz metro pasatxoko sugatza bat agertu zen, Buztundegiko bihurgunean autoren batek zapalduta. Herri-tar bat baino gehiagoren harridura sortu du aipatutako piztiak.

Larrialdi zerbitzua

Uda sasoi honetan, ekainetik uztaila bitartean konkretuki, larrialdi zerbitzuren bat sortuz gero 14:00etatik aurrera Beasaingo Osasun Zentrora deitu edo joan beharko da.

Ikasturte amaiera

Uda iristearekin batera ikasturte amaiera izaten da eskolume askorentzat eta aldi berean baita urtean zehar martxan egon diren hainbat ekintza ere. Horrela ingeles eta gimnasia ikastaroak amaitu egingo dira aurtengoz baina oporretako atsedenaldiaren ondoren jarraitzeko asmoarekin.

Iñaki Ugalde

ikusteko aukera izango da herriko plazan.

Azkenik, berriz, hurrengo larunbatean, uztailaren 5ean alegia, errepetizio eguna izango da eta bertan azken urte hauetan gero eta arrakastatsuagoa bihurtzen ari den sega apustua izango da. Lehenengo asteburuan egiten zen saioa, aurten bigarren asteburuan izango da eta herriko lau gaztek elkarren arteko lehia jokatu dute Odio aldeko zelaian. Bekotze eta Xefe, Iparre eta Zabaloren aurka arituko dira.

Batek daki horrela jarraituz gero, Seguran irailean jo-

katuko den Nazioarteko lehiaketan, segan arituko diren segalarien parean aritzeko moduan izango dira. Honen guztiaren ondoren afaria, mo-zorro gaua eta musika paregabea izango dira, festei behar bezalako amaiera emateko.

Festa guztietan zehar, udaletxe gaineko aretoan, herriko talde batek egindako eskulanen erakusketa ikusgai izango da.

Honekin batera goierritar guztiei gure herriko jaietan parte hartzeko gonbidapena luzatzea besterik ez.



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako Jaiak gainean dira. Herriarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta baita bertara hurbiltzen zaretenoi ere. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!



II. mendi maratoia

Uztailaren 6an, II. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia burutuko da Zegaman, IV. Aizkorriko Lagunen Eguna barnean. Izenematea ekainaren 30era arte dago irekia eta Udaletxera deituz (943 801351) edota zegama-aizkorri.com Web orrian sartuz egin daiteke. Esan, aurtén, proba hau, Estatuko III. Kopako puntuagarria eta Euskadiko III. Kopako puntuagarria izango dela. Gehienez 300 korrikalari izango dira frogan eta izena emandako ordenan onartuko dira partaideak.

Bazkarirako izenemateak: Uztailaren 6an, udal kiroldegian bazkaldu nahi duenak izena Udaletxean eman behar du 943801306 edota txarteal Ostaturan bertan erosi. Prezio 17 euro. Haurren menua 10 euro.

Idiazabaldarrak Zegaman

Ekainaren 15ean, usadiozko bisita jaso genuen Zegaman. Idiazabalgo herri agintari eta herritarak San Adrianen meza entzun ondoren, Zegamara abiatu ziren eta Gurutze Santuan, Zegamako herri agintariek egin zieten ongi etorria eta ohiko makila trukea egin zuten, Antton Imaz Idiazabalgo Alkate eta Jon Ormazabal Zegamako alkateordeak. Ondoren, hurrei goxokiak banatuz kalean barrena plaza-raino joan ziren eta Josune Zabaleta, zegamarrak lore sorta bat eman zion Idiazabalgo Alkateari. Ondoren, Txurrerian hamaiketako eskaini zien Zegamako Udalak.

Bestalde, egun berean, Santu Spiritun Meza izan zen Mikel Gartziandia apaizaren eskutik, ondore, herritar ba-

tzuen eskutik hamaiketako banatu zen bertaratuentzat.

San Adrianen eta San Pedron mezak

Ekainaren 22an, San Adrianen Meza izango da 11:00etan Pello Urriolabeitiaren eskutik. Ondoren hamaiketako Udalak eskainita. Bestalde, ekainaren 29an, igandea, San Pedro Ermitan ere meza izango da 11:00etan.

Arantzazura Peregrinazioa

Azken hamabostaldian, erlijiozko eta ohiturazko ekitaldi ugari izan ditugu zegamarrok, ekainaren 8 eta 9an, Arantzazun izan ginen. Igandean 400 lagunetik gora joan zen Arantzazura mendiz. Aslehenegian 10:15ean Goiko Bentan elkartu eta prozesioan Santutegiraino joan zen jendea eta Meza Nagusia entzun ondoren, bertaratu guztiekin argazki bat atera zen Santutegi aurrean. Bazkalondan 119 lagun etorri zen mendiz herri-
ra.

La Seu De Urgeleko Caterna Abesbatza

Euskaldunak La Seun eta Katalanak Zegaman. Pasa den udazkenena, Orkatz Abesbatzako kideak Ermengol Donenaren festak alaitu eta kontzertua eskaintzera joan baziren La Seu de Urgellera, oraingoan, hila honen 27, 28 eta 29 an gure artean izango ditugu, hiri horretakoak diren 'Caterna Choir de Cambra'ko kideak. Asteburuko ekitaldi nagusiena larunbatean, 28an burutuko da, elizan 19:00etan eskainiko duten kontzertuarekin. Egun horretan bertan, baina goizez



Jaunartzeak

Ekainaren 15ean Lehenengo Jaunartzeak izan ziren; aurtengoa honako haur hauek hartu zuten sakramentua: Unai Aierbe, Onintza Arakama, Unai Atxa, Idoia Berasategi, Mirian Estevez, Nerea Galdos, Ane Gorrotxategi, Janire Matxinandiarrena, Laura Vieites.



Herriko Ostaturaren inaugurazioa

Ekainaren 13an egin zen herriko Ostaturan egindako obren inaugurazio ofiziala, besteak beste, Idoia Zenarruza-beitia, Lehendakariordea izan zen ekitaldian.

Udaletxean harrera ofiziala egingo zaie, eta biharamunean, hau da igandean, Goierri bailarako bazterrak erakutsiko dizkie Orkatz abesbatzako lagunek.

Ekainaren 26an, hitzaldia

Antton Agirre Sorondok hitzaldia emango du Udaletxean datorren ekainaren 26an 19:30ean. Gaia, 'Zegamako ospitalak'. Bertan Zegaman joan den mendetan izandako ospitaletxeen berri emango du eta tartean Anduetzako Ospital zaharra ere agertuko da. Gaiarekin jarraituz, esan, ekainaren 25ean, 19:00etan Anduetza Egurraren Interpre-

tazio Zentroaren inaugurazio ofiziala izango dela.

Jubilatuen eguna

Uztailaren 13an Jubilatuen Eguna ospatuko da. Bazkarirako izenemateak: Uztailaren 1 eta 2an, Aizkorriko Jubilatuen Elkartean 18:00etatik 20:00etara.

San Joan sua

Tobera Musika Eskolako dantza saioa izango da ekainaren 23an, 19:00etan, zuhaitz altzatzearekin aurretik. Suaren ondoren, beste emankizun bat izango da, beti ere txistularien laguntzaz.

Eduñe Albizu

Etorkizuneko petrolioaren bila


Urak berealdiko garrantzia izango omen du urte gutxiren buruan, ondasun preziatua edukiko du ura daukanak. Ur edangarriaren urritasunak ezinbesteko den bizigaia lortzeko modu berriak arakatzeari ekarri du. Aurretik kontuak ateratzea hobe dela-eta, gurean ere hilabete batzuk badaramatzate Etxeberri baserriaren goialdean eta Argindegin zundaketak egiten.

Bi jakinahirekin ari dira Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Euskal Energia Erakundea elkarlanean diagnosi azterketa bat burutzen.

Batetik, meategiko aktibitatea amaitu zenetik burdin, zink eta sulfato kantitateak neurtzen ari dira, kutsadurak zein prozesu daraman jakiteko. Aidanez behera egin du mineral kaltegarri horien presentziak, lortu dituzten datuen arabera.

Bestetik, lehorte aldietan izan daitezkeen ur gabeziei aurre egiteko, bertan behera utzitako galerietan dagoen ura erabil daitezkeen aztertu nahi dute, Troia-Ikorta inguruan dauden lurpeko putzu handiei etekina nola atera. Sei puntutan egingo dituzte

TROIAKO AKUIFERO ZUNDAKETAK



A	B
TH-1	381
T-2	400
T-3	600
T-4	500
T-5	500
T-6	650

A: Zundaketa

B: Sakontasuna metroan.



Ekainaren 1ean jaunartzea egin zuten bi mutikoak, Jon Ander Larrañaga Aizpuru eta Jon Aranburu Bueno, meza ondoren.

zulaketak, TH-1 izendatu dutena garrantzitsuenak. Bertan 450 mm-ko hodi metaliko bat ari dira lurrean 381 metro barrura sartzen, ura behetik gorra bonbatzeko prestatuta dagoena.

Gainontzeko zundaketak lagin edo muestra geologikoak hartzeko erabiliko dituzte, lurzorua osaketa zehazteko, eta sakonagoak izango dira. Gipuzkoan gaur egun egiten ari diren luzeena da horietako bat -T-6a-, 650 metroko zuloa egingo baitute.

San Joan bezpera

Aurtengoan San Joan bezpera astegunean erori den arren urteroko usadioari eutsi egingo zaio, suaren inguruko errito zaharren sinismenak bizirik mantenduz. Udako solstizioaren hasiera iragarriko du bai-

ta ere egun honek, eskolaumeen opor garaia hasterekin batera.

Ekainaren 23an, datorren astelehenean, arratseko 9,30-10ak inguruan kanpai bueltakoen iragarpenarekin su emango zaio herriguneko metari, sorginak eta izpiritu txarrak uxatu nahian. Suak pizturik dirauen bitartean udalak ardo-goxoa eta pastak banatuko ditu inguratzen diren guztien artean.

Liburutegiko oharra

Liburuzainak jakitera eman digunez udan liburutegiko ordutegia aldatu egingo da. Ekainaren 21etik aurrera asteazkenetan goizeko 11etatik 13etara hartu edota utzi ahal izango dira liburuak.

Aimar Maiz

San Pedro jaiak Santa Lutzi auzoan

Ekainak 27, ostirala:

18:30ean: Futbol partidua: ezkonduak ezkongabeen aurka.

21:30ean: Afaria Anduaga elkartearen. Izena emateko deitu udaletxera (943721303), ekainak 26 baino lehen.

Ekainak 28, larunbata:

16:30ean: Ume jolasak.

Ondoren: Txokolate jana.

16:30ean: Mus txapelketaren hasiera Anduaga elkartearen.

20:30ean: Herri afaria Santa Lutzin. Izena emateko deitu

udaletxera (943721303), ekainak 25 baino lehen.

Ondoren: Erromeria Lutxurdio eta Aitziberren eskutik.

Ekainak 29, igandea:

11:00etan: Txistularien kalejira.

12:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketako Anduaga elkartearen.

12:00etan: Toka txapelketa.

Uztailak 12, larunbata:

16:30ean: Junior mailako txirindulari proba.

19:30ean: Sardina jana.

San Joan ospakizunak

Aurten ere iritsi zaigu San Joan eguna eta aipatu eguna ospatzeko ohizko ekintzez beteriko egitaraua prestatu da.

Ostiralean ekainak 20, arratsaldeko 6,30etan, Txindata musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua ospatuko da herriko enparantzan.

22:30ean Egunkariaren alde antolaturiko 'Kutsidazu Bidea, Ixabel' antzezlanak Zubipe kiroldegian. Aipatu antzerkia Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegiko Udalen laguntzarekin antolatu da.

Ekainaren 23an, San Joan bezpera, 21:00etatik aurrera, Txindata Musika Eskolako trikitilari taldeak alaituriko giroa buruhandien laguntzaz herriko enparantzan. Tantaia altxatzea herri gunean.

22:00etatik aurrera, San Joan suaren piztea, herriko txistulari taldearen doinuak. Jarraian txalapartariak eta herriko trikitilariak alaituriko giroa.

Ormaiztegiko Herri Taldearen eskertza

Ormaiztegiko Herri Taldeak eskerrak eman nahi dizkizue "hauteskunde egunean botoaren bidez gure taldearen alde egin zenuten guztioi, eta baita herritar guztioi ere, egun horretako jardunean horren jator aritzeagatik".

Bide batez, berriro ere adierazi nahi du "Ormaiztegi-*ren alde hartu dugun konpromisoa sendoa dela benetan, eta udal taldea osatu bezain laster, ilusioz ekingo diogula lanari, herriari begirako programa garatuz herritar guztioi sentitu zaitezten partaide eta onuradun*".

Gainera, Ormaiztegiko Herri Taldeak, "orain arteko tirabira eta ezin-ikusiak alde batera uzteko" aurrerapausua eman nahi du, gure herriarentzako eta herritarrontzako traba besterik ez baitira, eta guztioi eskatzen dizuegu aurrerapausu horiei jarraitzeko eta benetan erakusteko bide horri ekin nahi diozuela".

Aitzgorri futbol taldearen oharra

Aitzgorri futbol taldeak aipatu taldekide izan nahi duzen herriko gazteentzat gonbidapena bidali digu.

Alde batetik 1988 eta 1989 urteetan jaiotako gaztetxoei, 2003-2004 denboraldian, Aitzgorri taldean kadete mailan aritu nahi duzenoi dei egiten zaizue.

Bestetik 1990 eta 1991 urteetan jaiotako gaztetxoei, Aitzgorri taldean infantil mailan jokatu nahi duzenoi, Goierriin aipatu mailako futbol talde bakarra delarik.

Interesa duzenok Segura-



5 haurrek egin dute lehenengo jaunartzea

Ekainaren 15ean herriko bost haurrek egin zuten lehenengo jaunartzea. Elizkizuna eguerdiko 12etatik aurrera herriko Ander Deunaren parrokiara ospatu zen. Aurtengoan lekuko hori hartuko dutenak bi neska eta hiru mutil izan dira: Maider Alberdi, Ane Gomez, Kevin Magallanes, Aitor Marco eta Oier Ruiz de Azua.

KZgunea: Internet ikastaroak doan

Gure herrian eskualdeko beste hainbat herrietan egin duten bezala KZ gunea martxan jarri da. Ekainaren 2an ireki zituen ateak eta ordu ezkerotik nahi duzen guztientzat internet ikastaroak doan dituzue. Hau da interneteko doako sarbidea eta preskakuntza eskaintzen dituen zentro sarea da, Eusko jaurlaritzak eta Eudelek bultzaturik.

KZ gunea arratsaldeko 4etatik 8etara etara bitartean egoten da irekita eta herritarrek internet erabiltzen doan ikasteko aukera duzue. Aipatu KZ gunean eskaintzen diren ikastaroak herritar guztientzat dira, baina batez ere jubilatue, etxekoandre, etorkin eta luzaroan langabezian aurkitzen direnei zuzendua daude. Bereziki dendariei zuzenduriko ikastaro bat ere burutuko da.

Argibide gehiagorako eta izenemateak egin ahal izateko nahikoa duzue aipatu ordutegian udaleko erakusketa aretora hurbiltzea.

ko Alustiza futbol zelaira hurbil zaitezke ekainaren 5, 12, 19 eta 26an, arratsaldeko 6,30etan kirol arroparekin. Edozein argibide behar iza-

nez gero nahikoa duzue Oier Arzelusekin harremanetan jartzea 943-88.00.29 telefonora deituz.

Aitziber Murua

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
 ☎ 943 88 51 68
 ORMAIZTEGI

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
 Isuses industrialdea - ARAMA
 Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 ARMAIRU ENPOTRATUAK
 OBRAK
 ERREFORMAK**

"1.012 herritar ordezkariarik gabe"

4 urterako legeintzaldi berria ekainaren 14an hasi zen. Ordiziarrak Gera herri plataformaren legez kanpo uztea zela eta, tentsioz betetako saioa izan zen. "Berme batzordearen boto kontaketaren ondorioz egin beharreko zinegotzi hautaketarik ez da eman. Ordiziarrak Gera alderdiari 3 zinegotzi zegozkion. Herritarren hitza ez da errespetatu, ordea" adierazi zuten plataformakoek. Ondorioz, alderdi horrek ez du ordezkariarik izango Udalean.

Honela, beraz, Ordiziako Udal kudeaketak Alejandra Iturrioz, EAJ-EA alderdikoa, izango du buru eta honekin batera beste hamabi zinegotzi, 7 EAJ-EA koalizioak, 3 PSE-EEkoak, 1 PPkoa eta EBkoa bestea.

Kontaketa lehiaketako emaitzak

'Nor naiz ni?' eta 'Nikita' izenburuekin David P. Tijero bilbotarrak eta Patricia Suarez argentinarrak hurrenez hurren aurkeztutako lanak izan dira Kimetz Elkartek antolatutako kontaketa lehiaketan saritutakoak. Lehenak euskarazko arloan lortu du saria eta bigarrenak, berriz, gaztelaniaz idatzitakoan arloan. Sari banaketa ekainaren 6an egin zen.

San Joan sua

Astelehenarekin batera suaren inguruan dantza egiteko parada izango da. Tradizioekin jarraituz Garagartza Plazan sua egin eta hau itzaldur aurretik sorginak inguruan izango dira dantza eta juergan

biraoka. Juntadizoa iluntzeko 10,30etan izango da.

Zinea euskaraz

'Un mundo a su medida' Peter Chelsom zuzendariaren filma ikusteko aukera ekainaren 26an, osteguna, iluntzeko 9,30etan Herri Antzokian. Pelikula euskarara itzulia emango da. Aktore nagusien artean Sharon Stone eta Eiden Henson ageri dira.

Saskibaloitxapelketa

26 taldek astelehenean bertan eman zioten hasiera 22. koedrilari arteko saskibaloitxapelketari. Antolatzaileek lau multzotan banatu dituzte taldeak. Neurketak arratsaldeko 7,30etatik aurrera jokatu dira estaligabeko pilotalekuan. Finala uztailaren 17an jokatu da, Santa Ana jaietan atarian.

Futbol txapelketa

Lehen bi faseak amaituta finalaurdenak jokatzeko garaia iritsi da. 10 talde aritu dira orain arte lehiatzen eta Reggae Boys eta Vicuña Sport

Otegienea-Majoriko jaiak

Ekainak 20, ostirala:

17:00etan: Txupinazoa.
17:15ean: Gorriti.
19:15ean: 14 urtez behekoentzat krosa.
22:00etan: 'Charlin' diskoteka mobila.

Ekainak 21, larunbata:

10:00etan: Marrazki lehiaketa haurrentzako.
11:30ean: Pailazoak.
13:00etan: Aintzinako berebil eta motorren erakusketa.
16:00etan: Toka.
17:30ean: Arku-tiraketa.
18:00etan: Euskal dantzak.
22:00etan: Dantzaldia 'Charlin' diskoteka mobilarekin.
23:00etan: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 22, igandea:

11:00etan: Pailazoak.
12:00etan: Santa Ana abesbatza.
13:00etan: Laguntasuna Errondalla.
16:30ean: Gorriti.
19:00etatik 22:00etara: 'Charlin' diskoteka mobila.

Ekainak 23, astelehena:

19:00etan: Sardina jatea.

kanpoan geratu ondoren honela geratu dira fase honetako parekatzeak: Bustunmira taldea (iazko txapelduna) Altamiraren aurka, Badago-Irrintzi, Urbitarte Sagardotegia-Harri eta Ferro Tximista Sagardotegia. Neurketok larunbat eta igande honetan jokatu dira. Datorren asteburuan finalerdien txanda izango da eta ondoren, uztailaren 5ean, larunbata, finala jokatu da. Aipatu txapelketako

goleatzaile nagusia Bustunmirako Aitor Domaika izan dela 11 golekin eta ondoren sailkatu dira Tximistako Patxi Acosta 8rekin eta Irrintzi-ko Enrique 7rekin. Gol gutxien jaso dituen taldea Badago izan da. Finala larunbatean jokatu denez, parte hartzaile guztien arteko bazkaria ere egun horretan egingo da. Sari banaketa ere orduan izango da.

Garagardo festa

Ohorezko 'B' mailan hartuko du parte datorren denboraldian errugbiko lehen taldeak. Espainiar estatuko hainbat taldek osatuko dute multzoa eta honek berarekin hainbat bidaia luze egitea ekarriko du. Bidaia luzeak gastuekin elkartu behar eta hau dela eta, garagardo festa antolatzea erabakiko dute berriro ere errugbikoek. Ekainaren 26, 27, 28 eta 29a izango dira 25 garagardo desberdin dastatzeko aukera paregabea izango diren egunak. Beti bezala pilotalekuan ezarriko dira postuak eta mahaia eta ez dira faltako txerri-ukondo, saltxitxa eta postrea. Egutero arratsaldeko 6etatik zabalduko dira guneko ateak eta 12ak

arte izango dira zabalik. Girotzeko musika ere izango da.

Hagape elkarte informatzen

Rugby taldeko ingurukoek orain gutxi estreinatu dute elkarte berria eta oraingoan bazkide guztiei jakinarazi nahi diete ez ohiko batzarra egingo dutela uztailaren 5ean. Hitzordua goizeko 11etarako da eta bertan landuko diren gaiak hauek: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, barne araudian onartu beharreko aldaketak, Elkartek ongi funtziona dezan oinarritzko arauak birgogoratzea, balantze ekonomikoa, lokal berriaren inguruko proposamena eta norberak leharkeena.



VI. Gazte Festak, uztailaren 17tik 19ra

Urtero bezala, Gazte Festak izango dira Zaldibian. Datak dagoeneko finkatuta daude, uztailaren 17an, ostegunean, hasiko dira arkakuxoaren jai-tsierarekin. Uztailaren 18 eta 19an hitzaldiak, kontzertuak... izango dira.

Jakina da gisa honetako jaialdi bat antolatzeko lan ugari egin behar dela. Zaldibiako Gazte Taldea dagoeneko buru belarri ari da antolaketan. Baina, lanerako esku gehiago izatea ez da gaizki etortzen, Gazte Festa parte hartzaileak lortu nahi baitira. Beraz, ekainaren 26an, osteguna, agertu denok antzokira iluntzeko 9,30etan.

Eskulan tailerrak

Zaldibiako Gazte Taldeak eskulan tailerra antolatu du. Era guztietako lanak egingo dira: belarritakoak, apaingarriak... Materiala bertan izango da, beraz, gogoia besterik ez duzue behar. Agertu ekainaren 23an, arratsaldeko 4,30etan antzokira.

VI. Sasi pilotari txapelketa

Aurtengoan ere ZG Tk Sasi Pilotari txapelketa antolatu du. Alde batetik, buruz burukoa (90-100 gr.ko pilotarekin) eta bestetik, bikotetakoak (pilota gozokekin). Txapelketa pasa den ekainaren 16an, astelehenean, hasi zen eta finala Gazte Festetan izango da. Finalaren eguna eta ordua oraindik finkatzeko daude.

Eduarne Soraluze

Ekainaren 23an Alamartxo gaua

Ekainaren 23an, San Juan gaueko festa izango da. Zubi Buru elkarteak, Txarangak, dantza taldeak, txalapartalariek, trikitalariek... hartuko dute parte. Egitaraua:

19:00etan: Herriko txarangarekin kalejira.

19:30ean: Ardo barrika zabalduko da.

21:00etan: Herri Afaria plazan.

22:30ean: Alamartxoari sua emango zaio.

Ondoren: trikitalariak.

Margoketa erakusketa

Urtean zehar margoketa tailerrean egindako lanekin osatutako erakusketa zabalduko da gaur Kultur Etxean. Erakusketa ekainaren 27ra arte egongo da zabalik. Lan hauek ikusi nahi badi-tuzue astelehenean ostiralera egongo da irekita 17:00etatik 19:00ak arte.

Uztailaren 5ean arrantza proba

Urtero bezala, Gaztelu Ehiza eta Arrantza Elkarteak arrantza proba antolatu du uztailaren 5ean. Bertan, alebin, infantil eta jubenil mailako gazteek har dezakete parte. Gainera, aurtengoan, proba honek zenbait aldaketa izango ditu. Oraingo honetan proba ez da herri mailakoa izango, eskualdekoa baizik. Laguntzaileak Gipuzkoako Arrantza Federazioa, Foru Aldundia eta Zaldibiako udala izango dira.

Eskola Kirola 2002-2003 ikasturtean

Ikasturte honetan 8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek hartu dute parte. Aretu futboleko, saskibaloiko eta pilotari aritu dira 11 talde. Oso ondo ibili dira eta lortutako emaitzak ere bikainak dira. Adibidez, areto futboleko Gipuzkoako Txapelketan infantil eta alebin neskak Goierriko txapeldunak izan dira. Klub arteko Gipuzkoako Pilotari Txapelketa infantil mutilen taldeak irabazi du. Gainera, benjaminen taldeak beste zenbait jokotan hartu du parte: herri kiroleko, igeriketako, atletismoan...



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN

OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA

943 88 98 48



Gaztelu

● **Iturgintza**

● **Berogintza**

Mendi-Ondo etxea

943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

943 88 80 29

BEASAIN

San Joan bezperan, auzo guztietan piztuko dira San Joan suak. Muestrarako San Gregorion gau horretarako Artadi elkarteak antolatu duen egitaraua. Gaueko 9etan afaria Artadi elkartearen, bertsolari eta trikitilariak alaiturik. Afaritarako, entsalada mixta, base-riko oilaskoa patatekin, fruta freskoa eta kafe konpletoa. Ondoren, San Joan sua piztuko da giro ederrean.

Udalekuak eta ikastaroak

Udalekuak antolatu ditu Udalak 4 urtetik 8 urtekoentzat, 3 auzoetan, ekainaren 23tik uztailearen 18ra bitartean. San Martinen (Zelaieta azpian): astelehen eta ostegunetan; San Gregorion (Elkargunean): astearte eta ostiraletan; Aian (Haitzarri elkartearen): asteazkenetan. Haurren eraman-ekarria gurasoen ardura izango da.

8 urtetik 16ra bitarteko gaztetxoentzat kirol ikastaro eskaintza aparta izango da aukeran, zenbait berrikuntza tarteko. **Espeleologia** (12 ordu). Ataungo kobetan, ekainaren 23tik uztailearen 28ra. **Arku tiraketa** (10 ordu). Auzoeta kiroldegian ekainaren 30etik uztailearen 4ra. **Piraguismoa** (12 ordu). Agauntza errekan, uztailearen 7tik 12ra. **Eskalada** (15 ordu). Jentilbaratzan uztailearen 14tik 19ra. **Patin irristaketa** (10 ordu). Auzoeta kiroldegian uztailearen 14tik 19ra.

Ainhua Begiristain eta Oier Zurutuza sarituak

Ainhua Begiristain Arrondok, 'Iargiarekin hitzegiten dut gauero-gauero' bertsoarekin irabazi zuen Gipuzkoako eskolarteko XXIII. Bertsopaper lehiaketa, Lehen Hezkuntzako 3-4. mailako sailean Oier Zurutuzak, berriz, 'Zuri begira', erdi-bertso, erdi-poe-

siari esker, Urruzuno Literatur Lehiaketa irabazi du aurtengo hirugarren aldiz, A mailako (Batxilergoko 1 eta 2. mailak) poesia atalean.

Musika eta dantza festa

Musika eskolako eta Osoa dantza taldeko irakasle eta ikasleen eskutik jaialdi apartaren lekuko izan ginen joan den ostiralean Herri Antzokian bildu ginenok. Gitarra klasikoa eta elektrikoa, trikitixa eta pandero, piano eta teklatu, txistuaren soinuak, abeslari, dantzari... etengabeko joan etorrian bi ordu atsegin eta ziragarritz.

Labur-labur

● Joan den astean aurkeztu zituzten Maximo Aierbe eta Pello Joxe Aranburuk, 'Ataungo kanta zaharrak' eta 'Ataungo ogibide historikoak' liburuak. Ataun Aztergai bekari esker argitaratu diren liburuak, debalde eskuratzeko (sendiko ale bana) aukera izango dugu uztailearen 5a bitartean Udaletxean.

● Joan den larunbatean burutu zen **kargu aldaketa Udaletxean**. Gogora dezagun Herrigintzak 590 boto jaso zituela; Ataundarrok herri bilguneak 521. Ikustekoa da zertan gelditzen den baina Herrigintzak aditzera eman duenez, Ataundarrok-i jasotako boto kopuruagatik dagozkion 4 eserlekuak talde horren esku uzteko asmoa dute, "euren hitza eta iritzia erabitzeko udalgintzan lanean jarduteko aukera izan dezaten". Horrez gain, udal ardurak ere elkarnbanatzeko prest daudela adierazi berri du Herrigintzak. Izango dugu berri gehiago datozen egunetan.

● Joan den astean **hil zen** Amundarain baserriko Domingo Imaz Goena. Doluminak sendiari.

Santixalak Aian

San Joanak pasatuta berehalaxe datozkigu Santixalak ere. Egitarau aparta prestatu dute aiatarrek aurtengorako ere.

Ekainak 27, ostirala: haurren eguna:

16:30ean: Ume jolasak Patxin-Potxin pailazoeekin.

22:00etan: Maite Idirinen kantaldia.

11.30 ean: Epelde eta Larrañaga tladearekin dantzaldia goizalderarte.

Ekainak 28, larunbata:

19:30ean: Sardina eta sagardo dastaketa.

Gauean: Gazte afaria Joanito Mendizabal txiste kontalariarekin eta rock kontzertua: Brigada criminal.

Ondoren: Nekin taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Ekainak 29, igandea:

10:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Eate abesbatza.

12:30ean: Pelota partiduak (Goikoetxea-Arratibel / Zeberio - Albisuren kontra. Ondoren afizionatuak: Zubizarreta Garmendiaren aurka.

17:30ean: XVIII. Dantzari txikien saio mugatua.

Ondoren: Ataungo dantzari txikien saioa.

19:30ean: Herri kirolak: Mikel Mindegiaeren erakustaldia.

Gauean: Agautz trikitilari taldearekin goizalderarte.

Uztailak 2, asteartea: Santixal eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Bertsolari eta trikitilariak. Mañukorta eta Zeberio eta Agautz taldea.

Ondoren: Auzo bazkaria.

17:30ean: Bertsolari eta trikitilarien bigarren saioa.

Ondoren: Toka txapelketa.

Gauean: Agautz trikitilari taldearekin goizalderarte, jaietara amaiera emanez.

Bide batez, Aiako jai batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie Ataungo udalari eta jaien babesle izan diren gainontzeko enpresa, denda, tabernei...ere (leku falta dela eta aipatzerik izango ez ditugunak) eta, horrez gain jaietara hurbiltzen zaretenoi ere ondo pasatzeko gonbitea luzatzen dizue.

Agurtzane Bikuña



Egunkariako akzioak erosi dituen lehen koadrila. Zurea hurrena?

Egokitze lanak Oria ibaian

Orain bi urte inguru uholde-
engatik atzeratu ziren lanak
ekainean hasi dituzte. Udalak
eskaturik, Eusko Jaurlaritzako
ur departamentua ari da. Alde
batetik, Zubihandi pare-
ko Zeraindik datorren erreka-
txoaren ibairaketa egokitzen
ari dira, inguruko baserrietan
arazoak sortzen baitziren. Bestalde,
presa handiko saltoa mailakatzen
ere bai, arrainen ibaian gorako
bidaia oztopa ez dezan.

Txirrindulari proba bikainak

Segurako txirrindulari elkar-
teak antolatuta:

- **XIV. Gipuzkoako Itzuliko 3. etapa (jubenilak).** Ekainaren 23an, Segurako plazatik 16:00etan irtenda, 18:00 inguruan amaituko da (75 km.) leku berean.
- **Elite eta 23 urtez azpiko-en Euskadiko txapelketa.** Ekainaren 21ean. 16:00etan



Bost herri arteko finaleko partehartzaileak. Argazkia: Fotoetxe.

Bost herri artekoaren finalak

Haurren artean pelota bultzatu asmoz, 9 eta 15 urte bitarteko, Mutiloa, Zerain, Zegama, Idiazabal eta Segurako 60 mutiko inguru aritu dira txapelketan. Emaizak:

Benjaminak: Aritz Oiarbide-Ibai Urkia (Idiazabal) 16, Iñigo Imaz (Segura)-Ander Arnaez (Zerain) 9.

Alebinak: Julen Mintegi-Andoni Urteaga (Idiazabal) 18, J. Ander Insausti (Mutiloa)-Ander Kaloka (Segura) 17.

Kadeteak (4 1/2 barruan): Asier Izeta (Segura) 18, Eñaut Albadi (Zegama) 9.

Datorren urtean ere txapelketa antolatuko da.

Euskal partehartzaileak irailerako

Austria, Baviera, Eslovenia, Hego Tirola, Suzia eta Euskadi neurtuko dira

Irailaren 5etik 7ra Segurako maduran jokatu den Europako sega txapelketan parte hartuko duten euskaldunak ekainaren 15ean maduran bertan izandako sega proban erabaki ziren. 25 segalari izan ziren lehian eta horietatik 3, 30 urtez gorakoak izan ohi dira eta 7, 30 urtez beherakoak. 5 emakumezkoetatik, berri,

plazatik irtenda, 135 km. eginda, 19:30 aldera bukatuko da leku berean.

'Berria' egunkariaren alde

Akzioetan erosi beharreko 4850 eurotatik oso hurbil da dagoeneko Segurako herria. Oraindik ere, 50 edo 300 euroko akzioen bat erosi nahi duenak batzordekideren batengana edo udaletxera jo dezala.

Udala osaturik

Ekainaren 14ko kargu hartze-
ko osoko bilkuraren ondoren,

30 urtez gorako bat eta 30 urtez beherako 4.

Sailkapenak.

Gizonezkoak: 1.- J. Manuel Erasun (Aia). 2.- X. Mendizabal (Zaldibia). 3.- Altzo (Zaldibia). 4.- Andoni Egia (Orendain). 5.- J. M. Goenaga (Errezil). 6.- Inazio Goioaga (Zeanuri). 7.- U. Ormaetxea

udal ordezkariak euren karguak hartu zituzten. Alkate berria, EA-EAJ koalizioako Mikel Areizaga izango da datozen 4 urtetarako. Berarekin batera mahaian eseri zirenak, Joxe Mari Izagirre, Karmen-txu Ariztimuño, Manu Errezola, Jon Agirre eta Harresi herri plataformako Luli Telleria, Jaione Telleria, Iñaki Garaialde eta Iñaki Montero izan ziren.

Udako aisialdia

Jolas eta denbora pasarako 2tik 12 urte bitarteko 38 umek emana dute izena dagoeneko. Begirale lanetan aritzeko, berri, 5 apuntatu dira momentuz. Ekainaren 30ean, 10:00etan plazan elkartuta, uztailaren 18 arte arituko dira, talde ezberdinetan banatuta, umetxean, txanbolinpen, liburutegian, frontoian eta igerilekuan. Begiraleek, egitarauaren aurkezpena ekainaren 27an egingo diete gurasoei.

Labur-labur

- **III. Futbito txapelketa.** Ekainaren 21eko finala: 'Os-

(Orendain). 8.- D. Mariñelarena (Lantz). 9.- G. Etxeberrria (Amasa). 10.- Ikutz Garmendia (Beasain).

Emakumezkoak: 1.- Izaskun Larrarte (Ibarra). 2.- Rosi Urkola (Zizurkil). 3.- Aloña Gallarraga (Idiazabal). 4.- Ainhoa Lizarralde (Legazpi). 5.- Aloña Jauregi (Zaldibia).

tegunean loto' - 'Robine Zurrut'. 3. eta 4. postua: 'Guk asteazkenean' - 'Lanbatero'. Eguerdiko 12etan hasita.

● **Plater hausketa.** Ekainaren 22an herritar eta herrian jaiotakoentzat Mendotzeko zelaletan. Goizeko 11etan hasita. Taberna eta kartutxo zerbitzua.

● **Korpus eguna.** Ekainaren 22an, 12etan meza eta ondoren prozesioa komentutik irtenda. Iluntzean ardo partiketa eta herri afaria.

● **Preso eta iheslarien esku-bideen alde zenbait ekintza** burutuko dira festetan. Informazio gehiago mobilizazio egitarauan.

● **Martin Alustiza.** Asegarcerekin akordiorik izan ez eta pelota uztea erabaki bazuen ere, Besagain enpresarekin tratua egin berri du. Elkarriketa zabala, 30-31 orrietan.

● **Ingelesko udalekuak aterpetxean.** Uztailan hasita, 15 egueneko 4 txandatan 9tik 16 urte bitarteko gazte-
txoak arituko dira ingelese ikasten. Txanda bakoitzean 45 ikasle inguru.

Joseba Telleria

Igerilekua prest

Prestatze eta txukunketa lanak amaitu ondoren, ekainaren 26an irekiko da Oxiña igerilekua. Bertan zerbitzua eskainiko dutenak Marian Ariztimuño, Maite Ariztimuño eta Amelia Ferreirra izango dira. Abonoak, bertan egin behar dira.

Igeriketa ikastaroa. Uztailaren 7tik 24ra, 12:00etatik 13:00etara, 5 urtetik gorakoentzat. Izena emateko epea zabalik.

Kirol Elkarteak 25 urte

Kirol Elkarteko Futbol saila sortu zela 25 urte beteko dira aurten, eta hori ospatzeko ekitaldiak egingo dituzte aseturu honetan. Datozen egunetan, Kirol Elkartearen historia biltzen duen liburua aurkeztuko dute. Larunbatean, Kirol Elkartearekin hartu emana izan dutenek bazkaria egingo dute Pilotalekuan.

Kirol Elkartearen historia liburuan biltzeko ideia Futbol sailekoek izan zuten. Mende laurdena betetzera zihoazela ikusita, iazko udazkenean zerbait egitea erabaki zuten. Hasieran zituzten asmoak, eta orain eskuartean duten liburua diferenteak dira. Futbolak 25 urte hauetan Idiazabalen izandako gorabeherak bilduko zituen lana egiten hasi, eta gerra aurreko dokumentuak, kirol ezberdinen datuak eta argazki asko biltzen dituen liburua tajutu dute.

Lana bi ataletan banatuta dago. Lehendabizikoan, Futbol saila sortu aurretik herrian antolatzen ziren kirol ekitaldiak bildu dituzte. Bigarrenean, 1978az geroztik herrian izandako kirol taldeen kontuak bildu dituzte. Zazpiehun bat argazki izan dituzte esku artan egileek. Horietatik ia bostehun liburuan daude. Luistarren garaiko txirrindulari lasterketak, herrian futbol zelaia kokatuta egon den lekuetako argazkiak, futbol taldeen lorpenak eta antzeko kontuak biltzen ditu liburuak.

Kirol Elkartearen mende laurdena ospatzeko, larunbat honetan (ekainak 21) bazkaria antolatu dute Igarondo pilotalekuan. Urte hauetan guztietan Kirol Elkartearekin zerkusia izan duten herritarrak eta kanpotarrak bildu eta egun pasa egitea da helburua.

Udal berria

Antton Irizar izendatu zuten alkatea ekainaren 14an Udala osatzeko egin zen ekitaldian. EA-PNV koalizioak lortutako 11 zinegotzietatik bederatzik hartu zuten kargua. Indarzabal herri bilguneak aldarrikatzen zituen 2 zinegotziek ezin izan zuten kargua hartu.

Antton Irizar alkatea, legealdi berrian Indarzabaleko ordezkariak Udalean lan egiteko ateak zabalik dituztela jakinarazi zuen. Indarzabalek, osatutako udala antidemokratikoa zela salatu zuen, eta datozen lau urteetan Udaletxean lanean ari tuko direla adierazi zuten.

Uda kanpaina

Ekainaren 26an hasiko dira Uda kanpainako ikastaroak. 5 aukera daude (bakoitza kirol ezberdinak eta bestelako jolasak tartekatzen ditu) eta izena ekainaren 24a baino lehen eman behar da Udaletxean.

Igarondo igerilekuan (aurreko asteburuan ireki zuten) igeriketa ikastaroak antolatu dituzte.

KZ gunea

KZ gunea goizetan (9.00-13.00) egongo da zabalik ekainaren 27ra bitartean. 23tik 27ra nagusientzako ikastaroa emango dute.

Agenda

Ekainak 20: Donato Goyenetxe hirukoetaren 'A ritmo de tambores' ikuskizuna Pilarreneako Plazan 19:30etan.

Ekainak 23: San Juan sua. Gazte Asanbladakoek antolatuta, sua eta haren inguruko dantzak eta jaia izango dira.

Xabier Urteaga

II. Raid

Joan zen igandean hilak 15 Zeraingo II raida egin zen. Irteera goizeko 9:30etan izan zen. Hamasei zaldik hartu zuten baina bostek bakarrik lortu zuten 81 km. ibilbidea amaitzea, izan ere mendiko raid honen ibilbidea nahiko gogorra da eta eguraldia oso beroa izan zen.

Proba honetako irabazlea: Lasarteko Ion Illarramendi 'Guibus' zaldiarekin izan zen, 2. sailkatua Leaburuko Nora Oteiza 'Darko' zaldiarekin, 3. Zornotzako Lide Amilibia 'Neyev' zaldiarekin.

San Joan sua

Urtero bezala aurten ere ekainaren 23an San Joan bezperan, iluntzeko 8,30etan San Joan sua piztuko da herriko plazan.

Jubilatu txangoa

Ekainaren 28, larunbata jubilatuek eskursioa izango dute. Irteera, goizeko 9,30etan autobus geltokian izango da. Gatzagako gatz museoa bisitatu eta bazkaltzera Urkiolara joatekotan dira. Izen ematea Udaletxean egin behar da.

Mariflor Mendizabal



Bola txapelketa

Haur, gazte, emakume eta helduen bola txapelketa ere joan zen igandean egin zen partaidetza bikainarekin. Haurren mailan 19 neska-mutikok parte hartu zuten, hemen irabazle Mikel Campos izan zen 35 punturekin. Gazteen mailan 2 izan ziren eta Andoni Berasategik irabazi zuen 46 punturekin. Emakumeen mailan 9 lagun izan ziren eta Aitziber Makazaga zeraindarra izan zen irabazle 33 punturekin. Helduen mailan 41 bolari izan ziren eta garaile Jose Ugalde izan zen 50 punturekin.

Korpus eguna eta San Joan bezpera

Korpus eguna

Datorren larunbatean, hilak 21, urtero bezala Korpus eguna ospatuko da. Aurten ere ekitaldi zabala dago prestatua. Jaiari hasiera emateko, goizeko 10etan diana izango da trikitilariekin. Ondoren, 11etan, Herri krosa izango da. Bertan, hamasei urte bitarteko korrikalariak herritarak izan beharko dute. Jarraian, sari banaketa izango da.

Arratsaldean, jaiarekin jarraitzeko, 18:00etan XIV. Ardo Dastatze Txapelketa izango da herriko plazan. Honekin batera, 18:30ean, udalak zahagi ardo eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat 'Iraunkorrek' txarangak alaitua. Usariozko Meriendak, berriz, 19:30ean hasiko dira plazan, hau ere txarangak alaitua. Ondoren eta goizal-


dera arte, kalejira eta dantza saioa izango da txarangaren eskutik.

San Joan bezpera

Festarekin hasteko, udalak zahagi ardo eskainiko du bertara hurbiltzen den orrentzat, guztia 'Eneritz eta Naiara' trikitilarien erromeriak lagundua. 21:00etan piztuko da San Juan sua. Ondoren, herriko Dantzari gazteen eskutik, 'Agurra', 'San Juan Dantza' eta 'San Juanene Kantaita' dantzak ikusteko aukera izango da. Jarraian, 'Eneritz eta Naiara' trikitilariak lagunduko dute giroa alaitzen.

Korpus eguneko krosa

Legorretako XXV. Herri Krossa ekainaren 21ean izango da. Informazio gehiago 32, orrialdean duzue.



Igor Esnaola Gipuzkoako trontza txapeldun

Ekaineko lehen igandean, herriko jaietako azken egunean, herri kirolak izan ziren Harripila kiroldegian. Hauen artean, garrantzitsuena, Gipuzkoako trontzalari txapelketa izan zen, non Igor Esnaola herritarra garaile agertu zen Jose Gabirondorekin batera. Bikote hau Euskadiko txapelduna da. Txapelketa honetan hiru bikotek hartu zuten parte. Juan Mari Izeta eta Iñigo Izeta geratu ziren bigarren eta hirugarren Eugenio Orbegozo eta Iñaki Orbegozo.

Bestalde, ekitaldi honetan, bi harrijasotzaile ere aritu ziren, Joseba Ostolaza eta Aimar Irigoien. Bertara hurbildu zirenek erakustaldi bikaina ikusteko aukera izan zuten.

Bertso jaialdia

Ostiral honetan, hilak 20, herri zineman honako bertsolariak izango dira: Joxe Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua. Gai

jartzaile lanetan, berriz, Jose Mari Agirre 'Txato' arituko da. Ekitaldiari gaueko 10,30etan emango zaio hasiera.

Zelai Amenabarro

Udala Diputazioaren esku

Ekainaren 14a zen datozen 4 urteetarako udala osatzeko eguna. Dena den, ez zen horrela gertatu, EAJ-EA koaliziozko ordezkariak uko egin baitzioten beraien karguei. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku gelditu da Udalaren gestioa. Hemendik aurrerako bidea, Foru Aldundiak berak erabakiko du.

Maiatzaren 25ean izandako udal hauteskundeetan arabera, baliogabetutako herri pla-

taformak 156 boto eskuratu zituen; EAJ-EA koalizioak 150 boto eta PPK 13.

Herri eskolaren festa

Bihar, ekainak 21, herri eskolak urte amaierako festa ospatuko du. Erakusketak, musika, dantza eta antzerkia izango dira aukeran.

Uda kanpaina 2003

Udan sartzearekin batera, ekainaren 23tik uztailaren

San Joan sua

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, urteroko usadioa berrituko da: San Joan sua. Plazan izango da. Dena den, aurretik, txorixo eta sardina jatea ere izango da.

KZ Gunea uztailetik aurrera

Eusko Jaurlaritzaren Konekta Zaitetz kanpainaren barruan, internetean nabigatzen ikasteko eta ibiltzeko aukera izango da uztailetik aurretik, KZ Gunean. Ikastaroak antolatuko dira ikasi edo eta hobetzeko. Izena emateko udaletxera jo beharko da. Hurrengo alean izango dugu informazio zehatzagoa.

Zinea

Gaur, ekainak 20, 'Bide On'-ek antolatuta, 'El hombre que leía novelas de amor', filma izango da. Ohi bezala, gaueko 10etan, Ertoetxen.

18ra bitartean, 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat Uda kanpaina 2003 hasiko da.

Egunero hainbat ekintza egingo dituzte.

San Joan eta San Pedro jaiak

Ekainari jai giroan emango diogu amaiera. Aurten ere San Joan suaren inguruan egingo da San Joanetako ospakizun nagusia.

Ilunabarrean emango zaio hasiera, txistulariak Barrendain plazara igoko dira 21:30ean, bertan kokatuko baita festaren erdigunea. Ondoren suziriaren erreketa egingo da eta jarraian bertso saioa entzuteko aukera ere izango da 22:15ean. Suaren inguruan, Ostadar dantza taldekoek San Joan zortzikoa eta Akelarrea eskainiko dute eta 22:30ean piztuko da San Joan sua. Egunari amaiera Abaxi taldearekin goizaldera arte luzatuko den dantzaldiak emango dio.

San Pedro jaiak Arriaran eta Ezkiaga auzoetan

San Pedro egunaren inguruan ospakizun desberdinak izango dira Arriaran eta Ezkiaga auzoetan.

● Arriaranen, Ekainak 28:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Omenaldia herriko agure zaharrenari.

14:00etan: Herri bazkaria.

17:00etan: Mus eta punttu txapelketa.

21:00etan: Herri afaria bertsolari eta trikitilariekin.

Ekainak 29:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Pelota partiduak (kimuak, haurrak, koskor-tuak).

19:00etan: Herri kirolak (aizkolariak, trontza, txinga, koskol biltzea, etab.).

21:00etan: Herri afaria bertsolari eta trikitilariekin.

● Ezkiagan

Ekainak 28:

11:30ean eta 16:00etan: Puzgarriak Oriako Pasealekuan.

19:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

20:00etan: Sardina eta txistorra jana.

20:30ean: Dantzaldia Basajaun dantza taldearekin.

Nekane Altuna

Ikasturte amaierako emankizuna

Musika Eskolako ikasleak kontzertu desberdinak eskaintzen ari dira ikasturte amaiera dela eta. Bihar, ekainaren 21ean emango dute azken kontzertua. Harizko orkestra izango da kontzertua ematen Udal Batzar Aretoan 12:30ean.

Berritsu ludotekak antolatutako jaialdia

Ekainaren 27an, arratsaldeko 5,30etan, Gernika pasealekuan dagoen frontoi txikian, Berritsu ludotekak antolatutako jaialdi handia egingo da ume guztientzat.

Anjel Alkain eta konpainiak osatutako Gorringo taldeak, 'Tristeak kontsolatzeko makina' ikuskizuna eskainiko dute. Herriko ume guztiak gonbidatuta zaudete. Arratsaldea oso ondo pasatuko duzue.



Igartzako Poltsikoko Ikuskizunak

Kultura Batzordeak musika-kontzertuak, antzerki-emanaldiak, ballet-emanaldiak eta erakusketak antolatu ditu aurtengo Igartzako Ikuskizunetarako. Aurtengoa bigarren ekitaldia izango da.

Ekainak 20: Juanra Prado beasaindarrak bere diskografiako Moonpalace Recordsen lehen diskoa aurkeztuko du kontzertuan. Ursula, Cadizko taldeak; Tex la homa, Ingalaterrako taldeak; eta Ama, Donostiako taldeak izango dira disko aurkezten. Usurbe Antzokian 22:15ean.

Ekainak 26: Javier Arrillagaren kontzertua Igartzako Jauregian 21:00etan.

Ekainak 27: Beasaingo Errail antzerki-taldeak ikasturte amaierako antzerki-emanaldia eskainiko digu. Dario Fo-ren 'Gizon biluzia eta gizon frakaduna' obrarekin. Usurbe Antzokian 20:00etan.

Ekainak 29: Gala Ballet-eskolan, dagoeneko hiru urtez lanean aritu diren 18 haur eta gaztek ikasturte-amaierako ikuskizuna prestatu dute. Bizet-en 'Jeux D'Enfants' musika obra aukeratu dute koreografiarentzat. Usurbe Antzokian 12:00etan.

Uztailak 3: Ainara Legardon eta 'Young Talent show-ren' kontzertua. Igartzako jauregian 21:00etan.

Ekainaren 19tik uztailaren 20ra: 'Esploratzaileak XIX. mendean' erakusketa egongo da Igartzako jauregian. Mendiko espedizio desberdinetako 242 irudi ikusteko aukera izango da.

Kurtso desberdinak

Udal Euskaltegiak Udako Euskara ikastaroak antolatu ditu, euskalduntze, alfabetatze eta EGA hain zuzen ere. Ekainaren 27tik uztailaren 24ra (08:30-13:00). Irailaren 1etik 30era (08:30-13:00). EGA: Irailaren 1etik 30era (19:00-21:00). Matrikulatzeko epea ekainaren 24an amaituko da. Telefonoa.: 943 02 81 00 (09:00-13:00, 15:00-19:00).

Gala Ballet Eskolak, uztailerako antolatu duen kurtso berezian izena eman nahi duzuenok ekainaren 27a izango duzue azken eguna.

KzGunearen ordutegi eta kanpaina berria

Uztailan Beasaingo KzGuneak ordutegi berria izango du: 8:00etatik 16:00etara. Gainera kanpaina berezi bat antolatu dute. Erabiltzaile berriren batek kurtsoaren bat egingo balu uztailan, kurtsoa amaitzerakoan irati bana oparituko diote.

Martin Alustizak, 41 urterekin, Besagain enpresan jokatu du "Gorputzak jokatzeko jarraitzeko eskatzen dit"


Martin Alustiza punta-puntako pilotaria izan da 1980an profesionaletan debutatu zuenetik. 23 urte hauetan bi txapel ofizial jantzi ditu, 1984an 2. mailako banakakoa eta 1993an bikoteka Maizekin batera jantzi zuena. Aurten Asegarek ez dio kontratua berritu eta Besagain bigarren mailako enpresarekin jokatzeko jarraitzeko da.

Nola bizi izan dituzu azkeneko egunak?

Azkeneko 5-6 hilabete nahi-ko txarrak izan dira. Bane-
kien nire azkeneko urtea izan
zitekeela baina beti izaten da
esperantzaren bat. Julian Re-
tegiarekin hizketan aritu nin-
tzen duela 2-3 hilabete, en-
presak zein asmo zeukan ja-
kiteko. Berak esan zidan, uda
garai ona zela eta agian urte
hau bukatu arte aukerak izan-
go nituela. Duela hilabete,
Lekeitio, Asegareko pilota-
riok kontzentrazioa egin ge-
nuen eta bertan teknikariek
esan zidaten ez zidatela kon-
traturik berrituko. Ekainaren
30era arte nuen kontratua,
baina orduan erabaki nuen
gehiago ez jokatzeko Asegar-
cerekin.

**Erreritatuko zinela esan zen or-
duan, baina Besagain enpresare-
kin jokatu duzu.**

Nik garbi neukan, beste era
batera, baina jarraituko nuela
pilotan. Gorputzak eskatu
egiten dit, buruak ere bai. Ba-
dakit beste maila bateko par-
tiduak izango direla. Bigarren
mailako enpresa bat da Besa-



Sanjoanetan partidurik ez Seguran

Ordiziako Ekaitz bulegoa du goizeroko lan-
tokia Martin Alustizak, eta arratsaldeak en-
trentatzeko libre izaten ditu. Ezkondu zenetik
Usurbilen bizi bada ere, Goizean Ordizian
eta arratsaldean Seguran ohikoa da Martin
ikustea. Segurarekin erabat loturik jarraitzen
du, "ni beti segurarra izango naiz, zalantza-
rik gabe. Segurara egunero joaten naiz,
amarengana, bazkaltzera". Ama bera du ja-
rraitzailerik finena, Martinek jokatzeko dituen
partiduak ikustera joaten da, "nik baino pena
handiago amak hartuko zuen. Asko gozatu
du nirekin". Partiduetara joateaz gain beti
ondoan izan du laguntzen, praka zuriak gar-
bitzen, enplastoak jartzen...

Aurten sanjoanak nahiko libre izango ba-
ditu ere, pena bat du Martinek: Seguran jo-
katzekoa zen aurten sanjoanetan, baina Ase-
garekin horrela bukatuta ez du jokatu.

Segurak dituen bi pilotari profesionalen-
tzat bolada zaila izan da: Martini Asegarek
ez dio kontratua berritu eta Xabier bigarren
mailara jaitsi da. "Nik uste Xabierrena gogo-
rra izango dela. Lehenengo mailan ibili eta
berri ere bigarren mailan jokatzeko, egur
handia izango da. Oraindik gaztea da eta nik
uste berri ere garaia izango duela goian jo-
katzeko eta bere aukerak izango ditu. Saiat-
zen den bezala saiatuta, lortuko du Xabie-
rrek", dio Martinek.

gain, noiz arte ez dakit, baina
nire asmoa pilotarekin jarrai-
tzea da.

**Errandonea, Ariznabarreta.. dau-
de Besagain enpresan.**

Gehienbat horregatik noa Be-
sagainera. Oso harreman ona
daukat Errandonearekin, be-
rarekin asko ibili naiz eta be-
ra izan da gehien bultzatu
nauena, Ariznabarretarekin
batera. Beraiek ere oso gustu-
ra ikusten ditut Besagainen
eta horrek animatu nau.

Besagainez zer eskainiko dizu?

Ez dut kontraturik sinatu.
Konpromisoa hartu dut, hain-
bat partidu jokatzeko. Parti-
duko diru bat jasoko dut.

**Zure bizitzan aldaketa handia
eragingo al du egoera honek?**

Azkeneko bi-hiru urtetan txapelketetatik kanpo nengibilen,
pixkanaka-pixkanaka partidu
handietatik kanpo gelditzen
joan nintzen. Aldaketa handia
da. Bizi guztia horretan ibili
naiz. Profesional mailan 23

urte luze ibili naiz goiko pun-
tan. Pixkanaka-pixkanaka
zeure burua prestatzen joaten
zara, baina momentua iritsi
arte, beste urtebete gehiago-
ren bila saiatzen zara. Oso
gogorra izan da.

**Buru prestatu gabe harrapatu
zaitu beraz.**

Bai. Nire asmoa enpresari
beste urtebete eskatzea zen.
Baina enpresak ezezkoa eta
ezezkoa esan zuen. Lekeitio-
ko egun hura oso gogorra
izan zen.

Pilotari beterranoekin zabar samar jokatzen al dira enpresak?

Nik uste baietz. Nire kasuan, nik uste beste era batera jokatuz gero, hobeto hartuko nuela. 41 urterekin onartu egin behar da. Niri orain dela 6 hilabete bukatuko nuela esan eta partidu on batzuk jarri bazizkidaten, ez zen ezer gertatuko. Baina partidu gutxi, nahiko maila kaskarreko partiduak... erreta bukatzen da. Gainera bukaera nahikoa tristetia izan da.

Partidu eta torneo ugari irabazitakoa zara. Txapelak, gutxi.

Bigarren mailako txapela daukat, Maizekin irabazitako binakakoa eta galdutako hiru final. Baina niretzat garrantzitsuenak, hainbeste urtean goiko mailan egotea izan da. Azkenean, jendeak txapelei begiratzen die eta horretan nahiko eskas geratu naiz.

Ez al duzu inpresiorik izan, enpresak bikote aldetik laguntza gutxi eman dizula?

Bai. Urtea joan eta urtea etorri, gazteekin jarri izan naute. Enpresak esaten zuen, nire jokatzeke era, gazteei laguntzeko oso egokia zela. Azkenean, enpresak esandakoa onartu behar da. Urte askotan, gazteekin ibili izan naiz eta txapelketa bat irabazteko, gazteekin oso zaila da.

Goi mailako pilotan 23 urte eman dituzu. Momenturik onena zein izan da? Eta txarrena?

Onena, debuta. 18 urterekin profesional mailan debutatzea, amets bat izan zen. Baina ia momentu onena, bigarren mailako txapela irabazi nuena izan zen. Hura izan zen punta-puntako igoera. Txarrena, duela hilabeteak eta duela 2 urte, 39 urterekin, Belokirekin galdu nuen finala. Horrelako aukera bat galtzeak, izugarritzko mina eman zidan.

Zer eman dizu pilotak?

Gauza asko. Gehienbat, niri gustatu zaidan gauza bat egin dudala. Txiki-txikitatik nire ametsa profesionaletan jokatzea izan zen eta hori bete dut. Jende on asko ezagutu dut. Diru aldetik ere gustura gelditu naiz. Bizimodua ez daukat konponduta, baina gustuko zerbait egin eta diru on bat irabazita, ez dago gehiago eskatzerik.

Urte hauetan guztietan, pilota asko aldatu da. Telebista, materiala, apustuak, ikusleak...


Debutatu nuenetik hona, telebista izan da aldaketarik handiena. Orain dela 23 urte, urtean bi-hiru aldiz izaten zen pilota, finalak ematen zituzten. Orain berriz, astean 3 egunetan. Joko aldetik ere egon da aldaketarik. Nik debutatu nuenean, atxikia zegoen, pilota izugarri biziak ibiltzen ziren. Orain momentu honetan, material bezala dezentetia jaitzi da, eta nik uste hori beharrezkoa dela. Pilota on bat ikusi nahi izanez gero, erdi boteko pilota behar da. Korredoreei-eta dagokionean, nik uste gero eta diru gutxiago jokatzen dela pilotalekuean.

Pilotak zer egin du, onera ala okerrera?

Pilota munduan zikloak izaten dira. Momentu honetan kezkatzeko moduko momentuan gaude. Telebistak izugarritzko indarra eman dio baina momentu honetan oso jende gutxi joaten da pilotalekuekara, txapelketatik kanpo. Enpresak ere jaitzaldi gutxiago antolatzen ari dira. Partidu gutxiago daudenez, kontratuak beheraka doaz...

Bi enpresak ere plantilla murrizten ari dira.

Bi enpresa daude eta bien artean nahikoa ondo konponitzen ari dira. Horrek esan



9 dejada

Gustuko bikotekidea:

Ladis Galartza.

Gustuko aurkaria:

Julian Retegi. Bere aurka oso motibatuta jokatzen genuen.

Ezagutu duzun pilotari onena:

Julian Retegi.

Gaur egungo pilotari onena:

Aimar Olaizola.

Pilotaleku bat:

Eibarko Astelehena.

Gorri ala urdin:

Azken urteetan zaharrena izan naiz eta beti gorritz jokatut dut.

Partidua arratsaldean ala gauetan:

Arratsaldean, gauera arte itxaron beharra luze egiten da.

Pilota bizi ala motela:

Erdi botekoa.

Lehenengo praka txuriak noiz izan zenituen?

8 urterekin, praka motzak.

nahi du pilotariak nahiko aukera gutxi dituela. Enpresak ematen diona hartu behar du. Izarra denak ez du inongo arazorik izango. Arazorik handiena bigarren mailan daudenean, punta-puntan ez daudenean daukate. Lehen garai batean ikusten ez zena ikusten hasi gara: 30 urterekin, sasoi onenean, enpresek pilotari asko ez dituzte nahi. Garai batean, profesionalekara pasatuta, 37-38 urtera arte hor ibiltzen zen.

Eskutik sindikatua edo elkarteak sortu zen, pilotarien eskubideak defendatzeko helburuarekin.

Nahiko berotuta hasi ginen pilotariok. Baina gerora ikusi da pilotari bakoitza bere aldetik doala. Momentu honetan

oso hoztuta dago gai hori. Sindikatua hor dago, baina momentu honetan ez du ezertarako balio. Pilotari bakoitza bere aldetik doa eta pilotariok gure artean elkartzen ez bagara, alperrik da. Punta-puntako pilotariak mugitzen ez badira, alperrik da. Sortu zenean denok berotuta ibili ginen eta nahiko pauso handiak eman ziren. Nik uste dut beharrezkoa dela sindikatua eta agian denborarekin zerbait egingo da.

Pilotatik bizi al liteke?

Punta-puntako pilotariak bai, nahiko ondo gainera. Karrera bizi bukatzen denean, beste zerbait egin beharra dago. Pilotatik erretiratu eta horko diruarekin oso gutxi bizi dira.

Ekainaren 21ean, goizeko 11,30etan

Legorretako herri krosaren 25. urteurrena

Zorion eguna izango du Legorretako herri krosak, bihar, ekainak 21. Izan ere, 25. urteurrena beteko baitu. 16 urtetik gorakoentzako 8 kilometroko lasterketa da Legorretakoa. Jose Joakin Ezeizabarrena eta Bixente Esnal dira edizio guztietan parte hartu duten legorretarrak. Aurten ere bertan izateko asmoa daukate.

Goizeko 11,30etan hasiko da Legorretako XXV. Herri krosa. 16 urtetik gorako edozeinek parte har dezake bertan. Aurten ibilbidea zertxobait aldatu dute antolatzaileek eta 8 kilometroko luzera izango du. Honela, goizeko 11,30etatik 12,30etara, GI-2131 errepide zatia moztuta egongo da.

Izen ematea dohainik da. Egunean bertan, ordubete lehenago egin ahal izango da. Dena den, aurretik ere eman daiteke izena, interneteko bi helbideotan: www.herrikrossa.com eta www.legorretakoudala.com.

Kanpotik doazenez jakin bezate, herri eskolan, duxak eta aldagelak eskura izango dituztela. Amaieran, masailarien igurtziak ere aukeran izango dira.

Sariei dagokionean, lehenengo hiru gizonezko eta emakumezkoentzako sari baina egongo da. Lehenengo legorretararentzat ere bai. Lehenengo 100 sailkatuentzat kamisetak banatuko dituzte. Korrikaldiaren amaieran, lotteak oparituko zaizkie partaideei. Eta azkenik, guztientzat hamaiketakoa.



Bixente Esnal eta Jose Joakin Ezeizabarrena.

Ezeizabarrena eta Esnal 25etik 25

Jose Joakin Ezeizabarrenak eta Bixente Esnalek, Legorretako Herri krosaren 24 ediziotatik 24tan parte hartu dute. Ezeren okerrik ez dela, 25.enean ere bertan izateko asmoa daukate.

“Egun bateko loreak” dira Bixente Esnal eta Jose Joakin Ezeizabarrena. Sekula ez dute beste karreraren batean parte hartu, baina prestatu gabe, urtean behin egin izan dute korrika bi legorretarrekin, azken 25 urteotan. 8 kilometroko ibilbidea, bukatzea izan dute helburu.

Bixente behin saiatu zen bere marka hobetzen: “3. edo 4. urtean entrenatzen ibili nintzen, serio, zerbait gehiago egiteko. Baina aurreko egunean festa izan zen eta gauean hor ibili ginen. Hurrengo egunean izugarritzko pajara harrapatu nuen. Orduan erabaki nuen ez nuela gehiago entrenatuko”.

Korpus egunean, beti herrian izatea lortu dute Esnalek eta Ezeizabarrenak. Jose Joakinek, esaterako, lehe-

nengo urtean, justu-justuan harrapatu zuen. “Soldadutza bukatu berria nuen eta hiru egun lehenago iritsi nintzen. Beste askok, lehenengo edizio horretan huts egin zuten, soldadutzagatik”. Cadizen egin zuen soldadutza.

Bixente urte batean ere larri ibili zen. “Behin, Madril lanean nenbilen eta goizeko 7etan iritsi nintzen, trenean, Korpus egunean”.

Helburua beteta

Bixente Esnalek, duela 25 urte jarri zuen helburua bete du aurten. “Bilkoingo lehenakaria nintzen duela 25 urte. Herri krosa antolatzea erabaki genuen. Herriko jendea mugitu arazi nahi zen. Lehenengo bi urteetan jende askok hartu zuen parte. Nik orduan 26 urte neuzkan. 50 urte betetzerakoan 25. edizioa izango zela eta, nire buruari erronka bat jarri nion: baietz 25era iritsi. Hemendik aurrerako helburuak, urteka jarriko ditut”.

Gaur egun korrika aritzea

modan badago ere, “garai hartan ez. Korpusetako krosarako zerbait entrenatzen zen baina bestela ez. Gainera N-1 herritik pasatzen zen eta ez zen erraza. Jendea gustura egon delako iraun du hainbeste”.

Orain arte, 7,6 kilometroko ibilbidea izaten bazen ere aurten 8 kilometrorara luzatu dute. “Aurten ibilbide berria da, gogorragoa. Aldapa gora-behera txiki asko daude eta oso gogorra da”.

Duela hiru urte arte, herrikoentzako lasterketa baka-rik izan da Lasterkaldia gehienetan irabazi dutenak Rafael eta Jose Joakin Blanco anaiak izan dira.

Bitxikeriak

Hainbeste urtean bitxikeriak gertatuko zirelakoan, baka-rraren batez gogoratzen ote diren galdetu diegu Bixente Esnali eta Jose Joakin Ezeizabarrenari. Hasteko, kros garaian, sekula ez omen du euririk egin. Ea 25.enean ere horrela izaten den.

Bigarren bitxikeriak, Mikel Lasa futbolariarekin dauka zerikusia: “Korpus eguna egun handia izaten zen Legorretan. Egun horretako prozesioan, urte berean jaunartzea egiten zutenak ateratzen ziren. Denok zain egon ginen, Mikel Lasa, gaur egun futbolaria dena, etortzea falta zela eta. Hura oso ondo ibiltzen zen korrika”.

Gazte jendeari erronka

Azkenik, Bixentek eta Jose Joakinek, herriko gazteak animatu nahi dituzte, gutxienez, urtean egun batean, korrika egin dezaten, “bakterretik ‘mugitu’ esatea erraza da eta”.



Kilometroak-eko abestia aurkeztu zen Kontzertua eta bazkaria

Ekainaren 14an, Josu eta Jo-
kinek urteetan eman gabeko
kantaldia eskaini zuten Alaitz
eta Maider trikitilarien lagun-
tzaz. 300 lagun inguru bertar-
atu ziren ekitaldira. Ekital-
diak, bere ezustekoa ere izan
zuen, Kilometroak'03ko
abestia aurkeztu baitzen.
Abestiaren letra Jokin Lasak
berak egina da eta ahotsa be-
rriz, Alaitzek eta Maiderrek
jarri diote. Hemendik aurrera
askotan entzungo dugun
abestia izaki, honats, abestia-
ren estribilloa:

*Gaur, bihar eta etzi
nahi dut euskaraz bizi
goiz, arrats eta gauaz
bizi nahi dut euskaraz
berriz esango dizut:
euskaraz bizi nahi dut.*

Igandean, hilak 15, Lazka-
oko ikastolaren sorreraren
40.urtemuga ospatu zen. Eki-
taldi beroa eta xumea izan
zen eta bertan gonbidatu be-
reziak izan ziren: ikastolaren
sorreran parte hartu zuten an-
dereñoak eta maisuak. Bertan
egin zen jaialdiaren ondotik,
orogarri bana eman zitzairen
omenduei. Dena dela, aipatu



behar da, omenaldia bi zati-
tan egingo dela. Bata, igande-
an egin zena eta bestea, be-
rriz, urriaren 5ean egingo de-
na eta bertan ere, igandean

omendu ez zirenak omentze-
ko parada izango da bere oso-
tasunean eta merezimendu
osoz.

Igandean Anoetan errifekin batera Errealeko kamiseta zozketatuko da

Datorren igandean
KMK'03ko errifak salgai
izango dira Donostian eta
Anoeta futbol zelai ingu-
ruan. Ligako azken jardun-
aldian, Kilometroakeko
errifak erosteko aukera
izango da goizetik Donos-
tian, Alde Zaharrean hain
zuzen ere. Arratsaldeko
6ak inguruan berriz, errifa
saltzaile guztiak, Anoeta
futbol zelai inguruan bildu-
ko dira. Errifa hauek, or-
dea, badute berekin berezi-
tasun bat: egun horretan
Donostian eta Anoetan sal-
tzen diren errifekin batera,
Errealeko jokalariek guztien
sinadurak daramatzan ka-
miseta bat zozketatuko de-
la. Zozketatuko den zen-
bakiaren berri, partiduan
bertan atsedendaldian eman-
go da Anoetako bozgorai-
luetatik. Ahal den errifa
gehien saltzeko jendearen
laguntza eskatzen da, lerro
hauen bidez. Horretarako
Begoña Azpiroz edo Maite
Garmendia andereñoekin
jar zaitezke harreman-
tan.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

GERTU abokatuak



- AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ENPRESA ZERBITZUAK
- ASEGURUAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33



kutxa

gizarte ekintza

ZINEA

ITSASONDO:

Ekainak 20: 'El hombre que leía novelas de amor', 22:00etan, Ertoetxan.

ORDIZIA:

Ekainak 26: Euskarazko filma: 'Bailame el agua', 21:30ean, Herri Antzokian.

antzerkia

BEASAIN:

Ekainak 27, Errail antzerki taldearen 'Gizon biluzia eta gizon frakaduna', Usurbe antzokian, 20:00etan. Sarre-ra: 4 euro.

ORMAIZTEGI:

Ekainak 20, 'Kutsidazu bidea, Ixabel', 22:00etan, pilotalekuan.

musika

BEASAIN:

Ekainak 20, Musika Eskolako harizko orkestraren emanaldia, Udaletxeko Batzar aretoan, 12:30ean.

Ekainak 20, Moonpalaceren disko berriaren aurkezpen kontzertua hiru taldeekin: Cadizko 'Ursula', Ingaterako 'Tex la homa' eta Donostiako 'Ama'. Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarre-ra: 4 euro.

Ekainak 23, Dantzaldia Abaxi taldearekin, Barrendain plazan, 22:30ean.

Ekainak 26, Jabier Arrillagaren kontzertua, Igartzako jauregian, 21:00etan.

Ekainak 28, Basajaun taldearekin dantzaldia, Ezkiaga auzoan, 20:30ean.

Uztailak 3, Ainara Legardon eta Young Talent Show, kontzertua, Igartzako jauregian, 21:00etan. Sarre-ra: 4 euro.

MUTILOA:

Ekainak 27, M-n Ezten eta Alaitz eta Maider, 23:00etan.

Ekainak 28, Joselu Anaiak, 24:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 21, Ludiberri taldea, 23:30ean.

Ekainak 23, Tapia eta Leturia, 23:00etan.

Ekainak 24, Sobredosis de mistol eta Apartheid hil taldeen rock kontzertua, 23:30ean.

ORDIZIA:

Ekainak 21, Beti Argi musika bandaren Korpus eguneko kontzertua, 13:00etan, plaza nagusian.

SEGURA:

Ekainak 20, Kiñu taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 21, Irailera 6, taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 22, Txistu kontzertua, 13:00etan, plazan.

Ekainak 22, Arantxa eta Koldo trikitilarien 'Zuretzat' disko berriaren aurkezpena, 23:00etan.

Ekainak 23, Ene Bada taldearekin dantzaldia, 23:30ean.

Ekainak 24, Trikitzio taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

Ekainak 25, Tobera musika eskolaren emanaldia.

Ekainak 25, Egan taldearekin dantzaldia, 20:30ean.

pailazoak

SEGURA:

Ekainak 25, Takolo, Pirritx eta Porrotx, Baratzeko pilotalekuan, 16:00etan.



GUKlan


Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

ZALBIDE
TOLARE SAGARDOLEGIA

- ✗ Sagardoa txiritik irailaren bukaera arte
- ✗ Asteburuetan eguerdi eta iluntzetan
- ✗ Arrainean berezitasuna

© 943 65 21 76 ABALTZISKETA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

UNTXUNDEI
garajea



OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

dantza

BEASAIN:

Ekainak 23, Ostadar dantza taldearen 'San Joan zortzikoa eta Akelarrea', Barrendan plazan, 22:15ean.

Ekainak 29, Gala Ballet Eskolako en ikasturte amaierako emanaldia, Usurbe antzokian, 12:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 21, Xukan taldearen 'Iturrian zer dago?' dantza, bertso eta trikitri ikuskitzuna, 19:00etan.

Ekainak 21, Aretoko dantzen erakustaldia, 23:30ean.

SEGURA:

Ekainak 21, Euskal Herriko Dantza txapelketako kanporaketa, Baratze pilotalekuan, 18:00etan.

Ekainak 22, Euskal Herriko Dantza txapelketako finala, Baratze pilotalekuan, 18:00etan.

bertsoak

LEGORRETA:

Ekainak 20, Joxe Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Collina, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua. Gai-jartzailea, Jose Mari Agirre 'Txato'. Herri zine-man, 22:30ean.

OLABERRIA:

Ekainak 22, Alaitz Sarasola, Iñaki Apalategi eta Aitor Sarriegi, 13:30ean.

SEGURA:

Ekainak 24, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, 13:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Ekainaren 29ra arte, 'Bear' pintura zaletuen elkartearen egindako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketaretoan.

Uztailaren 20ra arte, 'Le tour du monde' erakusketa, Igarizako jauregian.

ORDIZIA:

Ekainaren 27ra arte, Jose Luis Estevezaren argazki erakusketa, Barrenan.

Uztailaren 4ra arte, Irene Mujikaren pintura erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Ekainak 29, Pasaia-Donostia, Aizkorri Mendizale Elkartearekin.

ORDIZIA:

Ekainak 22, Agurain-Opa-kua-Andoin, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

Ekainak 28, Ordizia-Orio, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Ekainak 21-22: Jauregi.
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Ekainak 28-29: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



IV. GARAGARDO FESTA

Ekainak 26, 27, 28, 29
18:00-00:00

Ordiziako Beti Alai pilotalekuan

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

IKASTEK AKADEMIA

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net
Joan Iturralde, 5
BEASAIN
☎ 943 160 120

KURTSOA GAINDITZEKO GARAIA!

Etorri Ikastek akademiara!
Lehen Hezkuntza, DBH, Modulukoak,
Batxilergoa, Unibertsitatea

UDA IKASTAROAK

Eman izena orain!
✕ Tailerrak, irakurmena, idazmena, matematika
✕ Eskolako lanak

Informa zaituz!

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Pisua salgai Beasainen. 50 m². Guztiz berriua eta mobleztatua. Edu. 649911320.
- ➔ Zegamako erdigu-nean 80 m²ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

konpartitu

- ➔ Donostiako Gros auzoan logela bat aurkitu nahi nuke alokatutako etxe batean, irailetik aurrera. 655714042.
- ➔ Elkarbanatzeko pisu bat bilatzen da Goierriin. 607088769. Ricardo.
- ➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.
- ➔ Azpeitian, alokatutako etxe batean, logela bat libre dago. 690066304.

errentan hartu

- ➔ Etxarrin uztailetik aurrera pisua hartuko nuke alokairuan. 678384952.
- ➔ Etxe bat errentan hartuko nuke Seguran, Idiazabalen edo inguruan. 690281452.
- ➔ Lazkaon edo inguruan, etxe hutsa alokatuko nuke. 943430550.

- ➔ Etxea edo apartamentua alokatuko luke bikote batek Goierrialdean. 617394357.

errentan eman

- ➔ Jakan apartamendua alokatzen da udako, igerilekuarekin. 943216684.
- ➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

Garajeak lokalak

errentan eman

- ➔ Idiazabalen, Kale Nagusian, garaje-plaza alokatzen da. 655703101.

saldu

- ➔ La Riojako Villamediana herrian 60 m²ko etxazpia salgai: sukaldea, bainu osoa, tximinia frantsesa eta hiriagas dun berogailua. Lorategi eta igeritokira sarrera. 627600477 - 941203400.

konpartitu

- ➔ Lokal bat konpartituko nuke alokairuan. Aukera ona. 943884108.

Animaliak

salgai

- ➔ 8 ardi eta ahari bat salgai. Gazteak eta onak. 943180388. Gauetan deitu.
- ➔ 2 setter salgai. Bat 5 urtekoa eta bestea 4koa. 943160015.
- ➔ 4 artzain txakurkume salgai. Merke. 943885831.
- ➔ Ehizerako hezi daitekeen txakurkumea salgai. Arra. 4 hilabete, Cocker Spaniel. 170 euro. 658747901.

Negozioa

errentan eman

- ➔ Olaberriko Etxe-Zuri sagardotegia alokairuan eskaintzen da, jubilaziogatik. 943882049.

Bestelakoak

salgai

- ➔ Forest kanping-gurua salgai. Behin baka-errik erabilia. Prezio interesgarria. 943884209.
- ➔ 2 aldiz bakarrik erabilitako 4 pertsonentzako kanping denda salgai. Bi gela eta abantzea. Oso prezio onean. 653743859. Joan Mari.
- ➔ Umeentzako kotxesila berria salgai. Osa-garri guztiak. 150 euro. 659511578. Miren.
- ➔ Land Rover luzearen parrila salgai. 150 euro. 943885831.
- ➔ Zanussi arkon kon-geladorea salgai. Txikia eta erabili gabea. Merke. 943889384 - 629977649.
- ➔ Haur batentzako silla salgai, Bebe Confort etxekoa. Oso egoera onean. 670422051.

PSIKOLOGI KLINIKOA



José Ramón Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

BEASAIN

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



AUSO EGI

Urdaneta, 41

☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



erosi

➔ Artoa txikitzeo makina erosiko nuke, eskuzkoa edo elektrikoa. 943181023.

errentan hartu

➔ Estetikako kabina alokatu nahi da. 943880019.

➔ Autokarabana bat alokatu nahi da abuztuan, 15-20 egunerako. 652760675.

Ibilgailuak

salgai

➔ Honda NSR 125 motorra salgai. Malossi kitarekin. 180 cm³. 6.000 km. 650221487.

➔ Peugeot 806 Port Aventura salgai. 99. utekoa. 115.000 km. Gris metalizatua. 605724385. Igor.

➔ Kawasaki Ninja ZX6 motorra salgai. 1998koa. 650191474.

➔ Citroen C15 diesela salgai. SS-Am. 607301243.

➔ Renault 15, diesela, salgai. 5 ate. SS-AM-Garajeon gordetako. 650679119.

Lana

eskaerak

➔ Lazkaon neska bat behar da tabernarako. Esperientziaduna. 943889771. 9:00-14:00etara deitu.

➔ Neska bat behar da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943087454. 13:00etatik 15:00etara deitu.

➔ Neska edo emakume euskalduna behar da 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943028038.

➔ Neska edo emakume behar da sagardotegi batean lan egiteko, larunbat iluntzetan eta igande batzutan. 615700408.

➔ Gaintzako tabernan neska bat behar da. 943886243.

➔ Emakume bat behar da Beasainen, 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Kontratuarekin. 615732366 - 943085381.

➔ Goierriko taberna batean lan egiteko neska euskalduna behar da. 649052806.

➔ Pertsona bat behar da sagardotegian lan egiteko. 676049931.

➔ Goierriko euskarazko komunikabide berri batek kazetariak eta teknikariak behar ditu. Curriculum bidaltzeko: Goieki, Mallutz, 29 - Ordizia. Goibista@mix-mail.com.

➔ Beasainen emakumea behar da umeak zaintzeko. Arratsaldetan, 3etatik 4etara. 676642501.

LAN ESKAINTZA

Hautzaindegi eta zentru publikoetarako deialdiak laister

Hautzaindegiko langileak

Baldintza hautzaindegiko L.H.2

INFORMA ZAITEZ

943 444 509

eskaintzak

➔ Neska euskalduna prest legoke tabernan zein ume zain moduan lan egiteko. 610368543.

➔ Klinika laguntzaile esperientziduna eskaintzen da arratsaldez zaharrak zaintzeko 943884343 - 605761630 (Raquel).

➔ Lazkaoko emakume bat edozein lanetarako eskaintzen da. 943880672.

➔ Goizetan ileapaindegi batean lan egingo nuke, Goierri inguruan. Josune. 650040753.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da maiatzetik aurrera, umeak zaindu edo dendan lan egiteko. 943084046.

➔ Neska euskalduna prest dago maiatzetik aurrera, umeak zaindu, dendan lan egin edo tabernan lan egiteko. 943886263.

 **Iñauti**
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

OBRA PROIEKTUAK
Etxe berriak eraikitzeo
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza
LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

 **KORO**
FISIOTERAPIA ERREABILITAZIOA
Eskatu orduea: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

 **"LURRA"**
J.Ramón Agirre "Márron"
Tel. 943 18 02 53
E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net Pirinioak pausoz pauso

Murgil zaitez inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Hondarribia - Belagoa - (7 etapa) • 2. Belagoa - Pineta (7 etapa)
3. Pineta - Tavascan (7 etapa) • 4. Tavascan - Eyné (7 etapa)
5. Eyné - Banyuls - Mediterranea - (7 etapa)





Olaberriko neska 1956-57 ikasturtean

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Juanita Aranburu, Mertxe Auzmendi, Pakita Goikoetxea, Maribi Lasa, M. Karmen Agirre, Karmen Alonso, M. Koro Goiburu, M. Belen Goitia, M. Lurdes Estensoro, Ana M. Mujika eta Joakina Arrieta.

Tartean: M. Tere Barandiaran, Josepa Goitia, Maritxu Ugartemendia, M. Isabel Agirre, Kasimira Goitia, Pakita Mujika, Antonia Mujika, Rosa Mari Lasa eta Isabel Arrieta.

Aurrealdean: M. Karmen Urkiola, Juanita Barandiaran, M. Isabel Munduate, Maite Azurmendi, M. Jesus Zurutuza, Josepi Arratibel eta Pepita Zurutuza.

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA
Zubi termiko hausturak
leihoak
Bulego eta bainuetako
mānparak
Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak
943 880 162
Iñautsi Ind. 14
OLABERRIA

INYELEC
Auto elektrizitatea
Telefónica
MoviStar
lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 805064

Jepasa S. L.
LANTEGI
HORNIGAIK
☎ 943 88 09 60
☎ 943 88 17 43
Faxa: 943 88 69 05
201 Industrialdea, 6. pab.
OLABERRIA
97 posta kutxa
BEASAIN

ARRIETA
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
JATETXEA
☎ 943 88 00 02 OLABERRIA
Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA
✖ Sagardoa txotxetik urte guztian
✖ Bataio, jaunartze,
lagunarteko eta negozio
bazkariak
✖ Karta
Aurrez deitzea komeni da
Tfnoa.: 943 88 20 49
OLABERRIA



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ANTZIZAR
KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

UDA AZKAR IGAROTZEN DA

Aprobetxatu ezazu... Berak eskainitako aukera

guztiak osotasunean goza ditzazun, Antzizar-

ek bere zerbitzuak zure esku jartzen ditu

urte osoan zehar, unea iritsitakoan

zu gozatzeaz bakarrik ardura

zaitezene. Nahi duzun moduan.

KIROLA EGITEN ARI DIRA >>>>

www.antzizar.net

tel. 943 887900



BEASAINGO UDALA